



ARGIA



ETA sortu osteko lehen biktima: Javier Batarrita Elexpuru enpresaria

Espainiako Poliziak 49 balaz josi zuen Bilbon 1961eko martxoan

Hamar polizia epaitu zituzten eta guztiak absolbitu

BOLUETAKO KRIMENA

Javier Batarrita Gaztelu semearekin elkarritzeta

» **AUDIENCE:** JOAN-ETORRIKO BIDAIA MUSIKALA KUBARA 'ISLA' DISKOAN

» **TXELL BONET:** "EZ DUGU BANDO GUDARIK NAHI KATALUNIAN, ADOSTUTAKO ERABAKIAK PREMIAZKOAK DIRA"

» **NAFARROAKO HONDAKINEN LEGEA:** KUTSATZEN DUENAK ORDAINDUKO DU



"ELS CARRERS SERAN SEMPRE NOSTRES"

kamisetak ARGIAAn salgai

Kamiseta hau erosita, 2 euroko ekarpena egingo diozu Kataluniako La Directa herri hedabideari, eta 2 euroko ekarpena ARGIAri, Kataluniako independentzia prozesua epe ertainera ere zorrotz jarraitu ahal izan dezan.



**Informaziorik gabe ez dagoelako demokraziarik,
kazetaritzan ere sustatu independentzia!**

ESKAERAK

www.argia.eus/azoka | azoka@argia.eus | ☎ 943 371 545

PANORAMA

- 4 Asteko argazkia
- 6-9 Albisteak
- 7 Fauna publikoa

IRITZIAK

- 15 Mikel Zurbano
- 16 Haizea Nuñez
- 17 Koldo Aldalur
Miren Artetxe



Kazetaria, dokumentalista eta antzezlea da Txell Bonet, eta duela lau hilabetetik Soto del Real espetxean dauka Jordi Cuixart senarra. JORDI BORRÁS

- 36 GURE ESKUBIDEAK
- 37 DENBORAREN MAKINA
- 38 BIZI BARATZEA
- 40 ARGIAKO AZOKA
- 41 ARGIA KOMUNITATEA
- 48 KULTUR KRITIKA
- 50 ZUZENEKO EMANALDIA
- 51 DENBORA-PASAK
- 52 ARGI-KONTRA:
NICOLE LOUGAROT
- 54 BERANDUEGI

AZALEKO ARGAZKIAK:
BATARRITA SENDIAK UTZIAK

SAKONEAN

- 10 | Javier Batarrita Gaztelu: "Aita hil zuten, bera izan zen biktima, ni kaltetua naiz" / Miel A. Elustondo
- 18 | Gehien kutsatzen duenak gehiago ordainduko du Nafarroan / Xabier Letona
- 24 | Txell Bonet: "Espetxeaz dugun irudia ez dator bat hango egunerokotasunarekin" / Saioa Baleztena
- 28 | Errezil eta Alegian euskararen hauskortasuna neurtzen etxebizitzak egin aurretik / Onintza Irureta
- 30 | Aguxtin Errotabehere: "Lur Berri euskalduntasunaren aurka garatu da" / Mikel Asurmendi
- 34 | Oteak dirua balio zuenean / Iñaki Sanz-Azkue
- 42 | Eta klaska pilota! / Itxaro Borda
- 46 | Audience: Kubatik ekarritakoaren isla / Xalba Ramirez

ARGIA KOMUNIKAZIO PROIEKTUA ARGIA JENDEAREN BULTZADAREKIN ATERATZEN DUGU AUERRERA. MILA ESKER DENOI.



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN SAREKO KIDE



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**



Gipuzkoako Foru Aldundia



Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L.
Ametzagaiña Taldeko partaidea.
Lehendakaria: Bego Zuza.
Zuzendaria: Estitxu Elizagirre.
Erredakzioa: Axier Lopez, Estitxu Elizagirre,
Gorka Bereziartua, Jon Torner, Lander Arbelaitz,
Maddi Txintxurreta, Mikel Asurmendi, Mikel
Garcia, Miren Osa, Onintza Irureta, Pello Zubiria,
Urko Apaolaza, Xabier Letona.
Diseinua: Sergio Labrador.
Argazkilaria: Dani Blanco.
Produkzioa eta inprimaketa: Antza S.A.L.
Administrazioa: Jone Arzallus,
Mari Karmen Loiarde, Marijo Aiertza.
Salmenta: Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua,
Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta.
Idazkaritza: Aloña Soraluze, Bego Zuza.

DOAN ETA LIBRE

ARGIAKO EDUKIAK KOPIATU, MOLDATU, ZABALDU
ETA ARGITARA DITZAKEZU, GURE EGILETZA AITORTU
ETA BALDINTZA BERETAN EGINEZ GERO.

Web garapena: Asier Iturralde.

Informatika: iametza interaktiboa, S.L.

Lege gordailua: SS 837-2012.

ISSN: 0213-909X.

Batzorde parekidea: 72562 E.

HELBIDEAK:

Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria.
Tel.: 943 371545.

Lapuri, Nafarroa Beherea eta Zuberoa:
Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel.: 559 473163.

Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina.
31001 Iruñea. Tel.: 948 222285.

POSTA ELEKTRONIKOAK:

Komertziala: komertzial@argia.eus

Harpidetza: harpide@argia.eus

Erredakzioa: kazeta@argia.eus

JUSTI



15.340 egun justizia eske

Pasa den larunbatean 42 urte bete dira sarraskia gertatu zenetik. Espainiako Poliziak 1976ko martxoaren 3ko greba orokorrean egin zituen 2.000 tiroek bost lagun hil eta 150 zauritu zituen. Zauri fisikoak sendatu ziren, baina justizi goseak bere horretan dirau. Espainiako justizia sistema itsu, mutu eta gor. Larunbatean milaka lagunek kalean erakutsi zuten memoria oso bizirik dagoela. Eta martxoaren 8ko grebak erakutsi du emakumeen eta herri mugimenduen parte-hartzeak indartsu jarraitzen duela, 76ko greba haien zabalkunde, garapen eta iraupenerako giltza izan ziren bezala.

Argazkia: Erlantz Anda (Arabako ALEA) · Testua: Axier Lopez



5.240 emakumek baino gehiagok hartu dute parte 29. Lilatoia lasterketan, orain arteko parte-hartzerik handiena.

t “Aupa neskak! Euriak ezin izan du gurekin. Une hunkigarria bizi izan duguna, helburua aurrera doa, itzaletik argitara”

@begisare

t “Gizontxoak kexatzen ezin dutelako Lilatoian parte hartu! Hainbesteko mina ematen die horrek? Ehunka lasterketa dute eta! Dena okupatu behar? Zaintza lan asko ere okupatzeko daude, baina ez dut kexarik entzuten!”

@txargain

t “Lilatoia amaitu da, ez ordea emakumeen borroka. Hezkidetzak borroka horren parte garrantzitsua izanik, gure ikastolan ez dugu amore ematen eta tinko jarraituko dugu berdintasuna aldarrikatzen eta sustatzen”

@jakintza



Monsantoren eta Bayerren arteko hitzarmena eteteko eskatu diote Europako Batzordeari

Miren Osa Galdona

@Mirentx_U

Laborantza-industrian egin den inoizko akordiorik handiena gelditzeko eskatu diote milioi bat lagunek Europari: Monsanto eta Bayer enpresek indarrak batuko dituzte, galarazi ezean. Hazi transgenikoen eta industria farmazeutikoaren arteko lotura 2016tik datorren arren, azken urteotan sortu du zalaparta handiena.

Plataforma digital bidezko sinadura bilketak jada milioi bat atxikimendu lortu ditu. Pestizidek erleen hilketa areagotu dezaketela eta herritarren elikaduran ondorio kaltegarriak izan ditzakeela nabarmendu du SumOfUs erakundeak.

“Glisofato toxiko gehiago egongo dira gure plateretan Monsanto eta Bayer batzen badira. Hau da, gure osasunarentzat txarrak diren substantzia gehiago irentsiko ditugu. Gainera, gure janariaren gaineko kontrol korporatiboa jasanezina bihurtuko da”.

Enpresok dituzten politikak osasunarentzat kaltegarriak direnez, ongizatearen baitakoak dira arrangura gehien sortzen dituzten arloak. Hala nola, nekazariak euren lurren gain duten erabakitze gaitasuna galtzea, ingurumenean sor ditzakeen kalteak, igorritako pestizida kopurua eta kontsumitzaileen askatasuna murriztea.

Apirilaren 5ean da Europa erabakia hartzekoa.

“Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen duten 60.000 pertsonatik 20.000 pentsiodunak dira”

ARMANDO AULESTIARTE, ARABAKO PENTSIONISTAK LANEAN PLATAFORMAKO KIDEA

“Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen duten 60.000 pertsonatik 20.000 pentsiodunak dira, emakume alargunak gehienak, pentsio baxuenak beraiek jasotzen baitituzte”. 1.080 euroko gutxienezko eskatu du Aulestiartek pentsiodunentzat. Bere hitzetan, DSBE soldata minimoarekin batera igoko zela adostuta zegoen arren, Eusko Jaurlaritzak ez du hitza bete. Kontrara, gutxiengo soldata %8 igo da, eta DSBEan %15eko murrizketak egin dira: “Triskantza jasanezina da”. **HALA BEDI (2018-02-26)**



FAUNA PUBLIKOA

**"Gaur lotsa handia sentitu dut
euskal herritarrek babesteko
eginkizuna dutenek beraien
legezko ordezkariak
inguratzen dutela (sic) ikusita"**

**Andoni Ortuzar EAJko lehendakaria,
Ertzaintzako kide batzuen protestaz (Twitter)**

Otsoak hazteaz



Gorka Bereziartua Mitxelena
@boligorria

Kontu onik ez biolentziaren monopolioa haserre dabile-nean: gaiztotuta dago giroa Ertzaintzan otsailaren 23an agente bat bihotzekoak jota hil zenetik Athletic-Spartak partiduen atariko istiluetan. Letaginak erakutsi dituzte 200 agentek baino gehiagok EAEko Legebiltzarraren aurrean martxoko lehen egunean, orroka eskatu dute Estefania Beltran de Heredia sailburuaren dimisioa eta, Zadorra Gasteiztik pasatzen dela probestuz, Jone Goirizelaia EH Bilduko parlamentariak ere entzun ditu bere kontra sain-gaka -Goirizelaia Iñigo Cabacasen familiaren abokatua delako, segur aski-.

Ulertzen da Ortuzarren adierazpena beraz, ez baita ohi-koa ertzainak horrela jokatzeko ikustea ordezkari politikoaren aurrean. Itxoin. Bota atzera azken esaldia, hitz bat falta da eta: ez da ohikoa ertzainak horrela jokatzeko ikustea ordezkari politiko batzuen aurrean, beste batzuei okerragoak egitera iritsi baitira atzo goizean bertan, bestela gogoratu zergatik bukatu zuen burutik odoletan Amalur Mendizabal Amaier koalizioko senatariak 2013an Hernanin -oraindik orain bi urteko kartzela ezarri diote Mendizabal jo zuen ertzainari eta Jaurilaritzak gehiegizko zigortzat jo du, Segurtasun sailburuordea den Josu Zubiagaren bidez-.

Lotsa ez, beldurra sentitzen du askok "herritarrek babesteko eginkizuna dutenak" eszenan agertzen direnean, egin dezaketena rengatik bezainbeste, "beraien legezko ordezkariak" joera daukatelako egingo duten ia edozer zuritzeko. Beraz, hau ez da Ortuzarregandik espero genuen adierazpena: polizia autonomikoarekin momentu honetan daukaten problema urtetako politika desegokien emaitza txiki bat baino ez da. Otsoak hazten dituenak, orain edo gero, haginkadaren bat jasotzen du. ■

**EZ
HANKA
EZ
BURU!**



HEMENDIK DA, BAI,
BIDEA EZAGUTZEN DUT...



ADUR

ANALISIA



Kontzertismoa, beste behin



Urko Apaolaza Avila

@urkoapaolaza

ARGAZKIA: EUSKO JAURLARITZA / IREKIA

140 urte bete dira Kontzertu Ekonomikoa sortu zela Araba, Bizkaia eta Gipuzkoarentzat. Euskal erakundeek garrantzi handiz ospatu dute teoriarik gabeko baten emaitza dena, foruen abolizioaren ondoren, gure burujabetzaren azken hondar gisa hartu izan da zerga sistema berezia.

Bilboko Arriaga antzokian mila lagun inguru bildu ziren joan den astean, lehendakaria, diputatu nagusiak, alderdi guztietako ordezkariak eta patronaleko buruak barne, ekitaldi solemnean. Era berean, ETB2n *Por derecho propio* dokumentala estreinatu zuten, eta tertuliak eta hitzaldiak errenkadan datoz "egungo autogobernuaren oinarria" defendatzeko.

Arrazoiak? Kontzertu Ekonomikoa era-so dute Madrildik. Zehazki, inkestetan gora doan Ciudadanosek pribilegioa dela argudiatu du: "Gainerako espainiarrek ordaintzen dugu *cuponazo*-a", esan zuen Albert Riverak Espainiako Kongresuan kupoari ezetz esateko. Baina ez gaude gauza berri baten aurrean: "Ez dago ezberdintasun handirik XX. mendeko hasierako eta gaur egungo kritiken artean", azaldu dio *Berria*-ri Mikel Erkoreka EHUren ekonomi itunaren agiritegiko ikerlariak; ezin ahaztuko ditugu 1893ko *Gamazada* bezalako gertaerak.

Gatazka edo gerra larriren bat tartean izan den bakoitzean jarri izan da auzitan euskal egitura fiskala. Agian, hori jakinda hartu diezaiokegu neurria urriaren 1ean gertatutakoari? Beste behin *casus belli* forala hartu da Espainiaren harrimane definitzeko jokaleku; ez dezagun aldebikotasun eta kontzertismoaren gaineratik fokua desbideratu beste gauza batzuetan, adibidez zerbitzu publikoei zuzenean eragiten dien gastu arauari. EAJren babesarekin Madrilen onartua, edo defizitari eta zorrari muga jarri dioten legeetan; finantza autonomia Ibex-35aren mesedetara kateatzeko ez da zertan kontzertua ukitu behar.

Hori da gure burujabetza soziala: nahikoa da Konstituzio Auzitegi bat doako osasun arreta bermatzen duen legea bertan behera uzteko Nafarroan, edo frackingaren kontrakoa ezeztatzeko EAEn.

Jendea ez baina gazteluak, jauregiak, militarrek eta agintariak ageri dira ETBren dokumentalean. Eta martxoaren 3a baino bi egun lehenago, Rodolfo Martín Villa ikusi behar izan dugu gure telebista publikoan, besteak beste Gasteizko 1976ko gertaerengatik frankismoaren krimenen kontrako kereilan auzipetuta dagoen ministro ohia. Zer pentsatua ematen du halako pertsona bati entzuteak Kontzertu Ekonomikoaren negoziaketak ez ziola "buruko min handienetako bat sortu".

EKONOMIAREN TALAIAN

Emakumeen borroka luze eta gogorra



Juan Mari Arregi

Emakumeen borroka, gizonen esku-bide berak izan eta berdintasunezko jendarte baten alde, ez da gaur egungoa. Erdi Arotik emakumeak saiatu dira gizonen esplotaziotik libre izaten. XIV. mendeko Europako nekazal matxinadak aipa ditzakegu, edo XVII. mendetik XIX.era Iparramerikan eta Ingalaterran zabaldu ziren ehungintzako grebak –langileak 20 urterekin hiltzen ziren lan baldintza txarrengatik–. Ezin ahaztu Frantziako emakume komuneroak, edo zigarrarak, pospologileak, zirgalaria eta espartingileak, Euskal Herrian, Katalunian nahiz Andaluzian. Eta berrikitan Bizkaiko zahar-etxeetako greba eredugarria izan dugu. Emakumeek borroka luze eta gogorra mantendu dute. Ehunka urte geroago, behin-behineko hobekuntza txiki batzuk izanik ere, esplotazioak eta desorekak irauten du.

Soldata arrakala izugarria da: gizonen batez beste 5.982 euro gehiago irabazten dute emakumeek baino –urtean 25.727 euro, 19.744 euroren aldean–. Arrakala handitu egiten da jubilariazko pentsioen kasuan: emakumeek hilean 742 euro jasotzen dute batez beste, gizonen aldiz 1.197. Datu politiko bat: Espainiako Kongresuan 350 diputatutik soilik 138 dira emakumeak.

Martxoaren 8an greba eta mobilizazioek egoera injustu hori ikusaraziko dute mundu osoan. Diskriminazioarekin hautsiko duten politikak behar dira; mendetasun eta esplotazio sexualarekin amaitu behar da. Horretarako, ezinbestekoa da gobernuetan emakume militanteak eta euren eskubideak defendatuko dituztenek –ez kapitalismo patriarkalaren zerbitzura dauden aldiak aldiko Thatcher edo Lagardeek– ordezkariak zabalagoa izatea. Eta gizonok, politikariak zein ez, emakumeen eskubideen aldeko militante eta aktibista izan gaitezten.



JUANRM / @MRROSTES

Elurte historikoa

EUSKAL HERRIA. Elurtuta esnatu zen Euskal Herria otsailaren 28an. Barnealdean nahiz kostaldean egin zuen, eta arazoak sortu zituen errepide sarean, garraio publikoarekin ere arazoak izan ziren eta hainbat ikastetxek atek itxi behar izan zituzten. Irudi ederrak utzi zituen elurrak. Argazkian, Ondarreta hondartza, Donostian.

LGTBIfobiaren behatokia sortuko du Iruñeko Udalak

Euskalerrria Irratia

@fm983irratia

Harrotu LGBTI zentroa eta LGBTI kolektiboentzako diru-laguntzak garatu zituen iaz lehenengo aldiz Iruñeko Udalak. Aurten, abiatutako egitasmoak martxan mantentzez gain, berriak hasiko ditu.

Ekimenak

LGTBIfobiaren behatokia; LGBTI errealitatearen diagnostikoa, gerora plana garatzeko; LGBTI erasoen kontrako protokoloa; eta Espainiako Estatuko LGBTI jardunaldiak hartzea. Horiek 2018rako Udalaren egitasmo berriak.

Jarraipena

Iaz hasitako ekimenek segituko dute: sexu eta genero aniztasunari eskainitako Harrotu zerbitzua baretetik, eta LGBTI foroak bestetik. Formakuntza ikastaroak eta LGBTI memoria berreskuratzearen aldeko ekimenak ere egingen dira.

Arrakastatsu

Harrotu zentroaren lehenengo sei hilabeteetan, 1.287 artatze egin dituzte eta 1.300 lagun bertaratu dira antolatutako ekintzetara. Eskakizunetan, informazio eskaera, sexologia kontsultak eta liburutegi eta mediatekaren erabilera nagusitu dira.

ATE BIRAKARIAK



114.778

euro kobratzen ditu urtero konpainia ezberdinen eskutik Miguel Sanz Sesma Nafarroako eta Nafarroako Kutxako presidente ohiak.

2011

urtean utzi zuen presidentetza eta ordutik, diru-sarreraren kopuru handi bat eraikuntzatik jaso du. VDR enpresatik 2.560 euro jaso du hilero; 2016tik, 1.590 euro.



AITORPENA

Poloniako hego-mendebaldean dago Wymysöü herria. 3.000 biztanle ditu eta gaur egun 50 wymysöüera-hiztun besterik ez dira. Eskualdean hizkuntza estatusa lortu du orain wymysöüerak.



MAMI LEBRUN

Xake Produksioak taldearen *Mami Lebrun* antzezlanak irabazi du Donostia Antzerki saria. Konpainiaren lehenbiziko antzezlanak da eta memoria, heriotza eta iraganari buruzko gogoeta eskaintzen du.



CONCEPCIÓN ESPEJEL

Concepción Espejel epailea izendatu dute Altsasuko gazteen epaiketa zuzentzeko. Gazteen abokatuek Espejel kasutik aldentzeko eskatu dute, Guardia Zibilaren koronel batekin ezkontuta dagoelako eta Guardia Zibila "Merezimenduzko Saria" eman ziolako, besteak beste.

Javier Batarrita Gaztelu

«Aita hil zuten, bera izan zen biktima, ni kaltetua naiz»

1961eko martxoaren 27an hil zioten aita –Javier Batarrita Elexpuru–, Espainiako guardia zibilek Boluetan (Bilbo) ipinitako kontrolean. Kulparik ez aita, “zoritxarreko istripua” izan ei zen, garaiko agintari frankisten arabera. Aitaren izen bereko semea, bederatzi hilabeteko haurra orduan, dugu memoriaren zaindari.



Miel A. Elustondo

ARGAZKIAK: ZALDI ERO

1960an jaioa zu, ondoko urtean, martxoaren 27an hil zuten aita.

Bederatzi hilabete nituen aita hil zutenean. Betidanik jakin izan dut aita hil egin zutela, poliziak hil zuela, zein polizia suertek hil zuen jakin gabe ere. Baina zirkunstantziak jakinak ziren. 1961 zen, diktadura frankistaren garaia, eta zelan gerra denboran gure etxean hildakoak izan ziren, bada, dena bat zelakoan nengoen, lotu egiten nituen heriotza denak, hala gerrakoak nola gure aitarena, etxean ere antzera bizi zutelako gauza. Geroko baten konturatu nintzen ez zela gauza bera.

Noiz bereizi zenituen heriotza batzuk eta besteak?

Aitaitak hainbat berba egiten zuen gerraren gainean. Familiaren barruan eta inguruan zenbait hildako izan ziren. Aitaitak kontatzen zuen historian, berriz, aitaren heriotza gehigarri moduko bat zen. Aitaita, izan ere, komunista izana zen, Gipuzkoa batailoian ibilitakoa. Iparraldeko kanpaina osoa egin zuen.

Santoñan (Santander, Espainia) aurre-ra egitea lortu zutenen artean izan zen. Avilesera iritsi eta arrainontzi batean sartu zen. Frantziako itsasozainek jaso eta Bordelera eraman zuten. Han, trenetan sartu eta Kataluniara egin zuten. Bartzelonan egon zen, nazioarteko brigadak ere ezagutu zituen eta ibili ere egin zen haiekin. Hala ere, Errepublikaren karabinero izan zen. Kataluniako muga zaintzen jarri zuten; batean, Lleida eta Andorra artean; bestean, Gironan. Gerra amaitu arte. Amaitu zenean, Frantziara jo zuen, Mediterraneo ko hondartzetara. Harrapatu egin zuten, eta Gursera bidali.

Nola izan zen zure aitarena?

Martxoaren 27an gertatu zen Boluetakoa. Bezperan, Zadorra aldean dabilela, morroi batek, zeharo betea ez nonbait –Vicente García Aguado da izenez–, baten batzuk berbetan ari direla ikusten ditu, eta bonbak aipatzen dituztela entzuten du. Ekintzaren bat prestatzen ari ote diren, alegia. Polizia-

ri esaten dio, baina ez diote sinesten, burutik dagoelakoan. Biharamunean, Zadorra aldean, bezperako inguru berean, Indauto enpresako guarda Gregorio Porcel Carrillok auto bat datorrela ikusten du. Autoa bazterrean gelditzen da, eta hiru gizonezko irteten dira. Handik pixka batera, beste auto bat dator,

Javier Batarrita Gaztelu

Bilbo, 1960

Abokatu da. Bederatzi hilabeteko zela hil zion guardia zibilak aita Boluetako Aginaga gasolindegian, bi lankiderekin batera Gasteizetik Bilbora zihoala. Bata larri zauritu zuten, onik irten zen hirugarrena. Gertatua desitxuratu, informazioa ezkutatu eta isilarazi nahi izan zuten orduko agintariek. Urte askoan ahaztua, argitara dator egia eta horrekin batera aitortza. Mina, ordea, sendaezina.



Gasteiz aldetik, eta lehengo autoaren ondoan gelditzen da. Txoferra jaisten da, lehengo hiru gizonezkoekin berba batzuk egiten ditu eta ondoren laurak bigarren autoan sartzen dira eta Gasteizerantz zuzentzen dira, lehenengo autoa bertan utzita. Indauto enpresako guardari susmo txarra eragiten dio eta guardia zibilari hots egiten dio. Guardia zibilak operazioa egitea erabakitzen du, joaten da Indauto aldera, baina iristen direnerako han ez dago autorik, joanak dira biak, bata Gasteiz aldera, bestea Bilborantz. Operazioa erabaki duen guardia zibileko teniente koronelak ondoko probintzietako kideak jakinaren gainean jartzen ditu, eta Bizkaiko Poliziako arduradun nagusiak Boluetako operazioa antolatzen du.

Martxoaren 27ko iluntzeko 7:30ak jota, zure aitaren Peugeot-a dator Boluetako Aginaga gasolindegira.

Hantxe guardia zibilak. Geratzeko agintzen diote autoari. Eta autoa geratu. Aita txofer, Martin Ballesteros ondoan jezarrita, atzean Larizgoitia. Autoa geratzean, Ballesterosek mugimenduren bat egiten du, eta guardia zibilari susmagarri iruditzen zaio. Aitari autotik irteteko agintzen diote, eta irten denean, ahots batek –polizia armatua, inondik ere–, “bera da! bera da!” hots egiten du, eta aitari geratzeko agindu dion guardia zibilak tiro egiten du. Guardia horrek Mauser bat du eskuetan, eta tiro harekin kasik burua kentzen dio nire aitari. Ondoren, tiro zaparradak datoz. Autopsiaren arabera, 49 tiro jaso ditu aitak. Hala ere, lehen tiroak akabatu du, buruaren alde batean sekulako zuloa egin diona. Aitaitak kontatzen zuen aita identifikatzera joan zela, ez zeukatela guztiz tapatuta ere, eta buruko zulokotea ikusi ahal izan zuela. Lehen tiroak akabatu zuen nire aita.

Zure aita hila, Martin Ballesteros larri zauritua.

Bala batek jo zuen Martin Ballesteros, baina bizkarrezurrean. Betiko elbarritu zuen. Larizgoitia beste inor ez zen onik irten. Autoaren atzeko aldean zihoan eta nonbait autoak ezkutu lana egin zion.

Diote polizia indarrek bertan utzi zituztela zure aita, Ballesteros eta Larizgoitia. Orduko *Gudari* aldizkariak kontatzen du jendeak eraman zituela ospitalera.



Argazkian Javier Batarrita Maria Antonia Gaztelu emaztearekin. Kotxe horretan zihoazela tirokatu zituzten Batarrita eta bi lankideak.

Pertsianak jaitsita dituzten auzoek? Gudari-k dio Izpizua batek eraman zituela ospitalera, Basurtura.

Por quién no doblan las campanas dokumentalean bi ziren produktoreak: Maite Esparza eta Maite Ibañez. Honen aitak, dokumentala ikusi eta alabari esan ei zion Boluetakoaren lekuko izan zela. Gogoan zuela zelan esan zieten poliziek pertsianak eraisteko. Haiek, berriz, etxetik irten, ondoko mendi kaskora igo eta dena ikusi zuten. Inondik ere, EGIko jendeak jaso zituen aita eta bi lagunak, eta eraman zituzten Basurtuko ospitalera, izen faltsuen azpian. Izpizuarik ere ez dago, EGIko militante batek nekez emango zukeen benetako izena. Militante haiek kontatuta agertu zen informazioa *Gudari*-n, *Lan-Deya*-n (*Emboscada sangrienta en Bilbao*, zioen) eta harrezkero argitaratu diren lanetan, dela polizia gehiegikerien biktimen balorazioari buruzko Eusko Jaurlaritzaren batzordearen txostenean, dela Iñaki Egañak *Gara* egunkarian publikatutakoan, dela Kike Santarénen *Deia*-n idatzitakoan, edo *Correo*-n, edo Arkadi Espadak *El Mundo*-n egindako zutabeen. Besterik da garai hartako egunkariak, *La Gaceta del Norte*, *El Correo Español* eta *ABC*-k atera zutena.

Egia osatu duzu?

Batzuen eta besteen informazioa bildu eta irudia osatzeko moduan garela uste dut. Batak bestearen kontrakorik ez du esaten. Zeinek bere bertsioa du,

desitxuratuak denak, baina denen artean bertsio bat osatzen laguntzen dute. Bertsio guztiak dira egia, baina denak dira partzialak, eta subjektiboak ere bai. Bertsiorik sinesgarriena denen artean osatzen da. Nire interpretazioaren arabera, hau eta hura leitu ostean, polizia konbentzituratua zegoen hura komando bat zela. “Bera da! Bera da!” esaten duenak badaki noren atzetik dabilen. Fernández Soldevillak ukatu egiten du hori, dio ez zebiltzala ETAkoez bila, baina zer edo zeren bila zebiltzan, nire aita, hila zegoela ere, ostikoz jo zuten eta! Larizgoitia atxilotu egin zuten, nire aita eta Ballesteros hantxe utzi zituzten. Jendeak eraman zituen ospitalera.

Zein ondorio ekarri zituen zure aitaren heriotzak?

Ez dakit, bada. Aitarik gabe hazi naiz. Ez daukat gomutarik, uste bat besterik ez, bizipenik ez daukat eta. Horretan beti sentitu naiz gainerako umeak ez bezalakoa. Pentsatzen jarrita, ikastetxean lagunak hasten zirenean, “Eta zure aitak zer?”, aita hila nuela esaten nuen, baina ez zitzaidan gaiaz berba egitea gustatzen.

Berba egiten zenuten etxean?

Berba egin behar bazen, berba egiten zen. Batzuetan, berez etortzen zen gaia, baina mingarria zitzaigun, ez zen egunero berba egiteko kontua. Ez genuen saihesten, baina ezta berbara ekarri ere, mingarria zelako; amarentzat, batik



Aitaren aita, aitaita

“Antonio Batarrita, 48 urte zituela hil zen. EAJko kidea zen, Eusko Jaurlaritzaren ordezkari izan zen zer edo zertan, eta Iparraldean babestu zuen bere burua. Gaixotu, eta Jaurlaritzak Bidarteko La Roseraie hotelean jarritako ospitalean operatu zuten, urdailetik. Egun berean, aleman gudarosteak sartu ziren herrian, eta korrika alde egin zuten mediku eta erizainek. Aitaita, operatu berri, hantxe, bestelako laguntzarik gabe, odolustu egin zen. Hil”.

Aitaren ama, amama

“Concha Elexpuru Arbillaga zen, lehen Eusko Jaurlaritzaren garaian Bilboko hezkuntza arduraduna, Indautxuko eskoletako zuzendaria izana, eta Euskal eskolaren burua. Nire gurasoekin bizi zen. Aita hil zenean, ordea, amama alabarenera joan zen bizitzera. Ama eta biok, berriz, nire amaren gurasoenera. Amama Conchari oker handia egin zion aitaren heriotzak, bihotzetik ibili zen harrezkero, eta nik hamalau bat urte nituela, hil egin zen, bihotzeko eritasunaren ondorioz”.

bat. Aita hil zutenean, amamari –amaren amari, Ramona Oiarzabal–, ondoeza egin zitzaion. Iktus bat izan zuen, inondik ere, ahoa okertu zitzaion eta; hala ere, bere onera etorri zen... Oso modu traumatikoan bizi izan zen etxean aitaren heriotza.

Mingarri zaizue oraindik gaiaz berba egitea?

Amari oso mingarri zaio. Auto judizialak, esate baterako, aipatu ere ez dizkiot

egin. Beldur naiz. Egunkarietan ezer argitaratzen dutenean ez dut kezkarik izaten, amak egunkaririk ez duelako leitzen. Baina telebistan gaiari buruz ezer ikusten duenean, ondoezik egoten da bizpahiru egunetan. Maria Antonia Gaztelu dut ama.

Pentsatu ere ez, orduan, nik harekin hitz egitea.

Estimatuko nizuke ez saiatzea. Eusko Jaurlaritzaren Giza eskubideen bule-

goko zuzendaria, Ines Ibañez de Maeztu, etxean izan zen, amarekin berbetan. Ondo konpondu ziren. Hala ere, amak batzordearen aurrean agertu behar zuela esan ziguten, eta joan ginen, eta hantxe, batzordeko kideen aurrean ama. Penagarria izan zen. Ama negarrez lehertu zen. Manuela Carmena zen batzordeko presidente, eta berak kontsolatu zuen, amaren ondora joanda.

Zuri, mingarri zaizu?

Ez. Ez dut bizipenik. Gauza pertsonala da, familiakoa, eta inportantea familiari dagokionean, baina, oroz gain, gertaera historikoa zait. Neurri batean orain ari da zabaltzen kasua, ari da publizitatzen, baina nik hala-moduzko neutraltasun emozional batekin bizi dut. Esateko moduan. Inork ezer jakin nahi duenean, ez dut eragozpenik informazioa emateko. Baina amarekin gai honen gainean berba egitea, ezinezko zait.

Neutraltasun emozional hori gorabehera, zer sentimendu sorrarazten dizkizu aitaren heriotza hark?

Errepresioaren atala izan zen. Nahi beste errepresio izan da herri honetan. Batzuetan batzuei egokitu zaie, besteetan besteei. Aitaren heriotzak beste heriotza askoren antza du. Tamalez, guri egokitu zitzaigun. Baina badiotsut, asko dira horrelakoak.

Aita hil zizuten. Nor da biktimia?

Hildakoa, zauritua, elbarritua... horixe da beti biktimia. Gainerakook, kaltetuak gara. Gure kasuan, etxeko senideok kaltetuak gara, pertsona hura galdu genuenok, harekiko harremana, haren erreferente pertsonala galdu genuenok. Baina ez gara biktimia, kaltetu baizik.

Bolo-bolo dabilen diskurtsoaren arabera denak dira biktimia.

Berba egiteko modua da. Beharbada gure hiztegia ez da behar bezain aberatsa, ez gaude gauzak ondo zehazteko eran, eta egunean egunekoaz berba egiteko daukagunaz baliatzen gara. Biktimen senideak biktimatzat hartzen dira, biktimia haiei dagozkien aitortza, ordain eta gainerakoak jaso ahal izan ditzaten. Hortik dator biktimia berba zabaltzea. Ni biktimia naizen galdetuz gero, ezetz esango nizuke, ni ez naiz biktimia, kaltetua baizik. Nire aita hil zuten, bera izan zen biktimia, ez ni. Ni, kaltetua.

Zer diozu lelo horretaz: “Gu, biktima ga-
ren aldetik...”

Terrorismoaren Biktimen Elkartea AVT-
ren diskurtsoa duzu. Nire ustez, alderdi
politikoei erabili egin dute elkarte, eta
elkartek ere utzi egin du erabil deza-
ten. Hor da diskurtsoa, baina ez da za-
baltzeko modukoa. Martxoaren 11ko
biktimen elkarteak ez du diskurtso ho-
rrekin bat egiten, adibidez.

Zer diozu Eusko Jaurlaritzak egin zizuen
aitortzaren gainean?

Ez genuen espero. Nik ez, behintzat.
Esker oneko hartu genuen; ez dakit
atseginez hartu genuen, baina esker
onoko bai. Bestalde, iraganeko bizipe-
nak orainaldira ekarri zituen –amaren
kasuan, batik bat–, eta amak txarto
pasatu zuen. Hala ere, esker oneko
agertu zen ama, aitortzak esan gura
zuenagatik.

Aitortza hori tarteko, ezagutu zenituen
beste biktimen senideak? Txikirenak, An-
txone Telleria, Otaegiren izeba...

Bai, baina kafe bat hartu bitartean egi-
ten diren berbak egin genituen. Bataren



anaia, bestearen alarguna... eta inoiz ez
genuen aipatu iraganen gertatutakoa,
datorrena baino, etorkizunean zer izan-
go den ibili ginen berbetan.

Azken hitza:

Gabriel Arestik
Javier Batarritari

*Nire laguna zen, nire lagun maitea
Bizikleteroa, denon adiskidea,
Ideologietan etzen inoiz sartu.
Bakean bizi zen mundu guztiarekin,
gorriekin eta berde eta zuriekin.
Orok estimazio handia zioten.*

*Iluntze batean zetorren Bituritik
Automobilean. Bihotzean zekarren
Andrea laztantzeko gurari bizia.
Oraindik eztiot entzun inoiz inori,
bekatua dela, edo bidegabea,
esposari senarrak mosua liola.
(...)*

Aita hil zizueten, eta heriotza hark buruz
beheiti jarri zuen familiaren bizimodu
osoa, ordukoa eta gerokoa...

Bai... ■

Kalean da martxoko

aizu!

- Maddalen Arzallus arin-arin
- Iruñeko Maravillas gaztetxean
- Amikuzeko irratia martxan
- Martxoaren 8an, Emakumeok* planto
- Trakamatraka: birziklatzearen doinua

Urte osoko harpidetza (Hego Euskal Herria eta Espainia) **29 €**
aizu.eus

Emakumeen pobrezia

Soldataren eta lanaren eremuko genero arrakalaren ebidentziak nolabaiteko presentzia mediati-koa eta soziala lortu du azkenaldian. INEren arabera (Espainiako Estatistika Institutua) aldi baterako kontratuen ia hiru laurdenak emakumeek betetzen dute Espainiako Estatuan. Halaber, iturri horrek emandako datuek erakusten dute 2014an Nafarroan soldatapeko emakumeek gizonak baino %30 gutxiago irabazten zutela eta Hegoaldeko gainerako lurraldeetan %24 gutxiago. Aldiz, pobreziaren arloko genero arrakala bistakoa den arren neurtzeko zailtasunak daude. Pobreziak emakume aurpegia du, baina hori egiaztatzea ez da lan erraza.

Pobreziaren estatistiken arloan genero perspektiba oso gutxi landu izan da. Estatistika ere gizonen eremua den heinean ez da harrigarria pobreziaren neurrietan genero profila ezkutuan izatea. Emakumeek soldata zein pentsio apalenak edo langabezia tasa garaie-nak dituzte Espainiako Estatuan, baina pobreziaren arrisku indize ofiziala antzekoa da gizon zein emakumeentzat. Halere, datu ofizialak eta errealitatea ez datoz bat. Estatistiketan etxeko eremua eraikitze moduan dago amarrua. Erakunde gehienek batez bestekoak aintzat hartuta eraikitzen dituzte familia estatistikak. Baina, familia batean berezko sarrerarik ez duenak zaila du sarrerak modu ekitatiboan eskuratzea. Gainera, etxeko lanen eta denboraren banaketa desberdintasunean oinarrituta egiten da, batik bat generoa eta adinari dagokionean.

Horrela, emakume eta gizonen diru sarrerak bereizten direnean emakumeen egoera okerra bistaratu egiten da. Ez da ohikoa, baina, adibidez, Bartzelonako Udalaren Ikerketa eta Analisi Sozialaren aldizkariak bide hori erabili du. Azterketa horretan erakusten da



Mikel Zurbano

EHU-KO IRAKASLEA

Emakumeek soldata zein pentsio apalenak edo langabezia tasa garaie-nak dituzte Espainiako Estatuan, baina pobreziaren arrisku indize ofiziala antzekoa da gizon zein emakumeentzat. Halere, datu ofizialak eta errealitatea ez datoz bat. Estatistiketan etxeko eremua eraikitze moduan dago amarrua

Katalunian emakumeen pobreziaren arrisku indizea %50 inguruan kokatzen dela eta gizonena aldiz, %24an.

Pobreziaren arloan genero arrakala ezkutuan uzten duen beste arrazoi bat pobreziaren neurria bera da. Izan ere, pobrezia neurtzeko diru irizpidea bakarrik kontuan hartu ohi da estatistika ofizialetan, pobreziak izaera multidimentsionala duela ahaztuta. Txirotasun egoerak aztertzeko errentaren zenbatekoa ez ezik ezinbestekoa da ondoko faktoreak ere aintzat hartzea: aberastasuna eta ez soilik errenta, kontsumorako aukerak, lan intentsitate apala eta langabeziaren eragina, desberdintasun indizeak edo politika publikoek zein zerbitzu publikoek zaurgarritasunaren aurrean eskaintzen duten babesa.

Are gehiago, oso predikamendu eskasa duten arren, denboraren gaineko autonomia eta eskuragarritasuna ere giltzarriak dira txirotasunaren ikuspegi integrala eraikitze. Horregatik, hitz egiten da denboraren pobreziaz gaur egungo gizarte oparoetan. Denboraren txirotasunak erakusten du pertsona batzuk bere lana -ordaindua izan ala ez-, ikasketak edo beste oinarritzko zeregin batzuk egin ondoren ez dutela denbora nahikorik, adibidez, deskantsurako edo aisialdirako. Egoera horrek ahalbidetzen du genero desberdintasunen arloko etxeko egoeren azalpena, bestela oso diagnostiko zaila duena. Halaber, denboraren pobreziak zainketa lanak eta bestelako lanen arteko bateragarritasunaz informazioa eskaintzen du. Finean, bere rol anitzak tarteko emakumeak *agortze sozialaren* arriskuaren aurrean noiz egon daitezkeen detektatzeko laguntzen du denboraren pobreziaren kontzeptuak ere.

Horrenbestez, argi dago genero ikuspegia era oso mugatuan barneratzen dela estatistika ofizialen eta analisi ekonomiko zein sozialen eraikuntzan. Eta aipatutako gabezia honek emakumeen pobreziaren errealitate gordinagoa ezkutuan uzten du. ■

Norekin zaintzen duzu elkar?

Gure garaia *Mr. Wonderful* garaia da. Triste, amorratua edo angustiatuta baldin bazaude, lasai egon, hartu arnasa, joan zaitez yogara eta emaiozu besarkada bat zuhaitz bati. Bai, zu, hiritarra, emaiozu besarkada zuhaitzari, bere izena ezagutzen ez baduzu ere. Zure esku dago nola sentitzen zaren eta zure esku nola kudeatzen duzun datorkizuna. Zure arazoek ez dute zerikusirik turbo-kapitalismoaren legearekin, indarkeria matxistarekin edo lesbofobiarekin. Ez duzu inoiz entzun albokoa baino gehiago izan behar duzula, inoiz huts egingo ez dizun hori zure familia dela eta, lagunak, izatekotan, gutxi izango direla, oso gutxi. Lagunen aurretik, familia. Familiaren aurretik, dirua. Lotura afektiboez gain, elkartasunez gain: zoaz kanpora dirua biltzera.

Zu, zure erdigunea, orain arte besteentzako izan zarela eta orain zu. Lehendabizi zu. Foru ogasunarentzat, gurasoentzat eta gehiengo zabal barentzat bakarrik bizi den emakume bat zara, bikoterik eta familiarik gabe. Hortaz, sare afektibo ikusgarri eta zilegirik gabe. Praktikara joanda, maite dituzun pertsonen zaintza beharrak dituztenean ezin dituzu zaindu, zure enplegu orduetatik kanpo ez bada. Aplikatzen



Haizea Nuñez

ABOKATUA

@haizea_nunez

Zure esku dago nola sentitzen zaren eta zure esku nola kudeatzen duzun datorkizuna. Zure arazoek ez dute zerikusirik turbo-kapitalismoaren legearekin

zaizun lan hitzarmenak onartzen dituen senidetasunak santu eta fede publikoak zigilupekoak dira: familia-liburua, ezkontza edo izatezko bikotea. Sexu hitzarmenak, "legeak horrela behartzen duelako", santifikatuak. Zuenan, ordea, lagunen erresistentzia sare

apokrifo da, merkatuaren legea eta odolaren kaiolari aurre egiteko lubakia: aitortza publikorik gabeko senidetasun soziala.

Besteekin bagara eta besteek ez bagaituzte ikusten ez gara nor. Norekin zaintzen duzu elkar? Hari horren amaieratik tiraka hasi zara eta konturatzeko zurrumbilo anitz dituzu eskuartean. Akorduan duzu zaintza eta arreta berezia behar izan zenuen azken aldia. Ospitalean ingresatuta egon zinenean, lagun bat joan zitzaizun alboan egoterra eta beste bat zure etxera joan zen, itzulitakoan afaria egina eduki zenezan. Ostegunero bezala barazki otarraren bila joan ezin zenuenean, lagun bat joan zen zure partez. Hotzak zetozela eta butanoaren bila joan ezin zenuenean, espero ez zenuen beste kide batek ekarri zizun. Hor diruaren aurretik, lagunak zeuden. Familiaren aurretik, lagunak ere bai. Sexu hitzarmena, familia-liburua, oinordekotza edo jabetza pribaturik gabeko harremanek eman zizuten osatzeko sostengua. Fikzio arautu hark bakardade autonomo eta buruaskian bizi zinela bazioen ere, errealitateak apurtu dizu fikzio hura. Elkarren arteko dependentzia sare behar duzu, zaintzarako aliantzak, bizirik eta libre izateko. ■



50 urtez elkarrekin



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



Apustua



Koldo Aldalur
KAZETARIA

Edozein negoziaziotan, mahaian eseri aurreko barne hausnarketak oso garrantzitsuak direlakoan nago. Tartean dauden indarrak neurtu behar dira, eta noraino iristeko prest zauden garbi izan. Gero eginaz, esanaz, eta batik bat sinatuaz damutzeak galtzaile bihurtuko zaitu, eta botatako seinaleak galtzeak duintasuna ere galzten ari zaren sentrazioa ekarriko.

Ez naiz ari Kataluniako egoera politikoari buruz, Iker Vicentek eta Xabier Orbegoza *Arria* V.ak apirilaren 8an jokatu duten aizkoljokoari buruz baizik.

Behin, niretzat herri kirol kontuetan jakintsuena zen Esteban Saralegiren etxeko aldaba jo nuen, eta badira hark arratsalde euritsu hartan oparitutako bi esaldi ahaztuko ez ditudanak. Lehenengoa: "Pertsona zuhaitzaren antzekoa da, gaztetan azala biguna eta barrua sendoa, eta zahartzean azala takarra eta barrua biguna. Eta bigarrena: "Apustuak mahaian irabazi behar dira".

Moja bati, denen begi-bistan, eskuarekin hartuta esparrago lodiak ahoan sartzeak matrailak gorritzen zaizkion bezala, niri ere, lotsa ematen dit maisu jakintsuari kontra egitea, baina, nire iritzian, apustuak mahaian eseri aurretik erabaki ohi dira, eta ez beti behin mahaian aurrez aurre eseritakoan.

Cantabrico tabernako zitara postura ezberdinean heldu ziren Otsagabiakoa eta Errezilgoa.

Azken honen gertukoek lau haizetara zabaldu zuten aurreko asteetan apustua nahi zutela. Herri kirol zalaren batzuek "nahi" baino gehiago "behar" ulertu zuten, eta hori ez da komenigarria izaten mahaian baldintza hoberenetan eseri nahi duenarentzat.

Iker Vicentek hiru proposamen eraman zituen mahaira, nahiz eta enbor handienekoa berak ere ez zuen gustukoa. Haren segidakoa onartuko ziotela ziur zegoen eta, ustez bederen, apustua egiteko halako premiarik ez zuenez, bazekien berea onartu beharko zutela *arriatarrek*, elkarri bostekoa eman nahi bazioten behinik behin. Azkenean, errezildarrak hamabi kanaerdiko plazaratuko ditu, eta otsagabiarrak hirurogei ontzako zortzi gogoragoa, saiatua, eta ordubete inguruko lana egiteko unerik hoberenean dago azken apustuak irabazita. Biek dakite plaza zer den, baina gazteak ez daki apustua zer den.

Hala ere, indarrak parean daude. Gazteak eskura izan zuen iaz Euskal Herriko txapela. Berano bere goitzenaren jabe da, harria baino gogorragoa, saiatua, eta ordubete inguruko lana egiteko unerik hoberenean dago azken apustuak irabazita. Biek dakite plaza zer den, baina gazteak ez daki apustua zer den.

Xabierren aitak, *Arria* II.ak, behin esan zidan jende aurrera ateratakoan apustua jokatzera praka barrenak dantzarik egiten ez badu hor aizkolaririk ez dagoela. Aizkolarienak ez ezik, aizkorazale askoren galtza barrenak ere ederki mugituko dira epaileak haserako txistua jotzen duenean. Itxura ikargarria du. ■

Galdera erretorikoak



Miren Artetxe Sarasola
BERTSOLARIA
@mirenartetx

Galdera erretoriko batek ez du, berez, erantzunik eskatzen, formaz dialogo baten hasiera badirudi ere. Galdetzaile erretorikoaren helburua ez da zalantza bat adieraztea edo ezagutzen ez duen informazioa eskatzea.

Badaude kaltegabeko galdera erretorikoak. Ia-ia antzeman ere egiten ez direnak. Kanean inor presaka gurutzatu eta bekainak igoz botatako "zer moduz?" hori, esaterako. Edo "zergatik gertatzen zait dena niri?" tragikomikoa.

Maiz, ordea, galdetzaile erretorikoak nahi duena besteren aurrean bere ikuspuntua berrestea da, eta aldi berean, entzulea hausnarketara bideratzea, azken finean, bere iritziarekin bat egin dezan.

Eta badaude, ahoskatze hutsez botere-harreman bat sortzen edo birsortzen duten galdera erretorikoak ere, autoritate jakin batetik baino egin ezin direnak. "Zenbat aldiz esan behar dizut isiltzeko?" edo "zer zaude, erotuta?", esate batera.

Eta galdera egin aurretik botere harremana berez egon badagoenean galdera erretoriko bat egiazko galderaz mozorrotzeak badu halako gurasokeriazko perbertsio kutsu bat. "Orduan ez duzue nahi gizon feministok grebarik egin dezagun?" izan liteke adibide bat.

Ez baita gauza bera interesa adieraztea eta... interesa adieraztea. ■



NAFARROA

KUTSATZEN DUENAK ORDAINDUKO DU



Xabier Letona
@xletona

Hondakinen kudeaketan aurrerapauso handiak eman nahi ditu Nafarroako Foru Erkidegoak datorren hamarkadan. Bide horretan egiten dute topo Gobernuaren asmoak, gizarte mugimenduen bultzadak eta iraganeko erresistentziek. Datozen asteetan Nafarroako Hondakinen Legea onartuko du Legebiltzarrak. Ondorengo erreportajea legearen mamia zertan den azaltzen da.



Zer da lehenago, arrautza edo oiloa? Legea ala plana? Beti dira gisa honetako galderak aurrera egin nahi denean eta oraingoan ere bai. Kontua da Foru Erkidegoan lehenbizi Nafarroako Hondakinen Plana egin zutela 2016an –ARGIA-ren 2.526 zenbakian azaldu genuen berau– eta orain, 2018an, onartzeaz dela Nafarroako Hondakinen eta hauen Fiskalitatearen Legea.

Nafarroako Legebiltzarrean da Foru Gobernuak iragan azaroan onartutako lege proiektua, Nafarroako Kontseiluak legeari buruzko bere ebazpena eman zain. PPK eskatu zuen Nafarroako Kontseiluak azter zezala Espainiako lege-diarekiko bateragarria den eta, duela hiruzpalau aste, Legebiltzarrak bide eman zion eskaerari. Kontseiluaren ebazpena iristen denean –egun edo aste gutxiko kontua– sartuko da osoko bilkuran eta aldaketa sostengatzen duten lau alderdien baiezkoarekin aurrera aterako da. 2015ean Geroa Baik, EH Bilduk, Ahal Duguk eta Izquierda-Ezkerrak lortutako akordio programatikoaren puntuetakoa da hau.

» Planak eta Legeak aurreikusten dutenez, hondakin guztiak lau atal nagusi horietan biltzea derrigorrezkoa izango da 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera

» Zabortegira tratatu gabe daraman tona bakoitzeko 20 euro ordaindu beharko du mankomunitate bakoitzak


Aldeta klimatikoari aurre egitea eta pertsonen osasuna ez kaltetzea dira legeak bilatzen dituen onura nagusiak. Horretarako, gaur egun funtsezkoa da ekonomia linealetik ekonomia zirkularrera pasatzea: gutxitu, berrerabili eta birziklatu kontzeptuak bete-betean aplika daitezten bultzatuko du. Printzipio horietan argia da legea eta bat dator hondakinen esparruan Europar Batasunetik ekonomia zirkularra hedatzeko bultzatzen ari diren ildo nagusiekin.

2016ko Nafarroako Hondakinen Planak, esaterako, argi du errausketa ez dela ekonomia zirkularrerako bide eta hasieratik baztertzen du berau; UPNren Gobernuaren aurreko hondakinen kudeaketan, errausketa osagai nagusieta-koa zen. Gipuzkoa eta Bizkaiko diputazioek ere errausketa ekonomia zirkular gisa saltzen dute.

2016ko datuekin, hondakinen %40 gaika biltzen da Nafarroan eta, beraz, %60 zabortegietara doa. Hondakinen planaren arabera, 2027rako Nafarroako hondakinen %70 bilduko da gaika eta, gainera, hondakinen ekoizpena %10 gu-

NAFARROAKO HONDAKINEN BILKETA GAIKA (2016ko datuak)

Etxeko eta dendetako hondakinen %40 bakarrik biltzen da gaika



Bilketa gaika eta eskualdea (kg/biztanleko/urteko)

Eskualdea	Papera (%10)	Ontziak (%5)	Beira (%6)
Bortziriak	32,5	20,4	43,1
Baztan	32,5	20,4	40,4
Malerreka	32,5	20,4	33,4
Eska-Zaraitzu	31,1	12,9	34,2
Irati	41,3	22,4	20,0
Iruñerria	42,6	22,0	24,4
Zangotza	40,0	13,9	22,7
Bidausi	46,6	25,9	54,1
Araxes Garaia		11,3	52,2
Mendialdea	44,0	20,0	40,5
Sakana	43,3	25,5	32,8
Izarbeibar	33,5	18,2	37,5
Mairaga	35,6	17,6	31,2
Erribera Garaia	33,1	20,9	19,7
Erribera	30,8	16,7	15,7
Jurramendi	27,0	20,4	26,8
BATEZ BESTE	38,6	20,7	24,9

Hondakin organikoen bilketa (%13)



Mankomunitatea	Bilketa eredua	Biztanleak	Tonak
Sakana	atez ate	%15,9	364
Iruñerria	edukiontzia giltzaz	%41,6	7.931
Erribera Garaia	edukiontzia giltzaz	%63,7	787
Jurramendi	edukiontzia irekia	%98,6	11.653
Erribera	edukiontzia giltzaz	%56,5	108
Izarbeibar	edukiontzia giltzaz	%70	451
Mairaga	edukiontzia irekia	%22,3	561
Bortziriak/Baztan/Malerreka	ekoizle handiak	-	319
GUZTIRA		%45	319

txitu nahi da 2010-2017 epea aintzat hartuta. Oro har, helburu handiak eta egokiak dira edozein administrazioentzat eta edozein erakunde buru-belarri aritu beharko da lortu nahi baditu. Herriarrak ondo asko ezagutzen du legearen teoriatik ohiko praktikara dagoen tarte itzela.

Derrigortasuna

Nola aurreikusten du Legeak printzipio horiek betetzea? Nafarroako Gobernu-ko Ingurumen Sailburu Isabel Elizalde argi utzi du bere agerraldietan hondakinen kudeaketa aurreratuetan klabea zer den: hondakinak ahalik eta ondoen sailkatzea. 1989an, esaterako, Nafarroan ez zen inolako gaikako sailkapenik egiten eta egun hamaika gai bereizten dira. Oinarrizko lau gai dira nagusi, hala ere, etxeko eta dendetako hondakinen bilketan –esparru honetaz ari da legea– erabiltzen direnak: papera, beira, ontzi arinak eta hondakin organikoa. Azken honen bilketan ohi da arrakastaren giltza nagusia.

Organikoa edo biohondakina da Nafarroako hondakinen %45 eta, oro har, hondakinen kudeaketan berau da kontrolatzeko gaitzena. Planak eta Legeak aurreikusten dutenez, hondakin guztiak lau atal nagusi horietan biltzea derrigorrezkoa izango da 2022ko urtarilaren 1etik aurrera. Hori da Legearen indarguneetakoak: derrigortasuna. Gai konplexua ohi da hondakinen kudeaketan eta ARGIAko irakurleak gogoratuko du nola aurreko agintaldian, Gipuzkoako Diputazioan EAjk gidatutako oposizioak inposiziotzat jotzen zuen organikoaren bilketa derrigorrezkoa izatea.

Hondakinen erakunde bakarra Nafarroan

Edozein legetan moduan, derrigortasuna giltzarri bada ere, lege honek indar berezia jarri nahi du bi ataletan: gober-nagarritasuna eta fiskalitatea. Goberna-garritasunaren ikuspegitik gaur egungo Nafarroako Hondakinen Partzuergoa desagertuko da eta Nafarroako Honda-kinen Erakunde Publikoa sortu, hon-dakinen kudeaketa guztia gidatzeko helburuarekin. Nafarroako Gobernuak eta Nafarroan egun diren mankomuni-tateek osatuko dute erakunde berria, eta erabaki gehiengoa azken hauen es-kuetan egongo da, tokiko erakundeetan. Honekin bermatu nahi da hondakinen

Iturria: Nafarroako Gobernuak.

NAFARROAKO HONDAKINEN ETA HAUEN FISKALITATEAREN LEGEA

HELBURU NAGUSIAK

Aldaketa klimatikoari aurre egitea

Ekonomia zirkularra: hondakinak gutxitu, berrerabili, birziklatu

Kudeaketa hobetzea

- » Pertsonen osasuna kaltetu gabe
- » Erakundeen koordinazioa hobetuz

TRESNA NAGUSIAK

Gobernantza. Nafarroako Hondakin Erakunde Publikoa (Nafarroako Gobernua + Tokiko Erakundeak (Mankomunitateak).

Fiskalitatea. Zerga berria (Zabor gisa botatzen dena –hondakinak nahasian– zergapetzen ditu

FILOSOFIA: KUTSATZEN DUENAK ORDAINTZEN DU: 20 € zabortegira bideratutako tonako / 3 € eraikuntza tonako / euro bat lurra eta harri tonako

Hondakin sailkapena. Derrigorrezkoa da, baita organikoa ere, eta 2027rako hondakin %70 sailkatua bilduko da

Hondakin Fondona. Hondakin kudeaketa hobetzeko

Hondakin Bulegoa. Hondakin gutxitzea eta ekonomia zirkularra bultzatzeko

Hondakin Erregistroa. Kudeaketa eta Produkzioaren kontrola

NEURRI ZEHATZAGOAK

- Plastikozko poltsen debekua dendetan
- Biodegradagarriak ez diren plastikozko ontziteriaren salmentaren debekua
- Erabilera bakarrek botilen salmenta debekatzen da eraikuntza publikoetan
 - Ostalaritza: derrigorrezkoa da pitxer ura doan eskaintzea
- Ontziak biltzeko SDDR sistema hedatuko da (herritarrak makina bidez edo herritarrak ontziak bildu eta trukean dagokion dirua jasotzen du)

planak ez daitezela egon lau urteroko gobernu aldaketen menpe eta lanak jarrakortasuna izatea.

Kudeaketa hobetu nahi da, zalantzarik gabe, baina neurri honekin Nafarroako Gobernuak bultzatu nahi du baita ere Iruñerriko Mankomunitatea erakunde berri honetan integratzea. Gaur egun, Nafarroako hondakin bilketan bi erakunde handi daude: Iruñerriko Mankomunitatea eta gainerako mankomunitate guztiak biltzen dituen Nafarroako Hondakin Partzuergoa. Iruñerriak Nafarroako biztanleriaren erdia biltzen du eta legea bultzatzen dutenen iritziz, bada ordua indar hori guztia norabide berean jartzeko.

Erakunde berri honen zeregina izango da Planak eta Lege berriak finkatutakoa aurrera ateratzea, baina, aldi berean, hainbat zerbitzu eskainiko ditu, mankomunitateek nahieran erabili ahal izango dituztenak.

Kutsatzea ez da doan

Zer da zabor, zer ez? Zer da ekonomia zirkularrean berrerabili daitekeena? Hori da Lege honen fiskalitate berriak argi utzi nahi duena, eta, eztabaidak eztabaida, hori da bere alor aurrera-koienetakoa: sailkatu gabe biltzen den zaborra zergapetzen duela. Zabortegira tratatu gabe daraman tona bakoitzeko 20 euro ordaindu beharko du mankomunitate bakoitzak. Kutsatzen duenak ordaintzen du, horra legearen filosofia nagusia.

Europako zuzentzauek eskatzen duten moduan, ez dago zalantzarik legeak filosofia hori bultzatzen duela, baina bada ika-mikaririk horren inguruan ere. Azken finean, filosofia honek pertsona bakoitzarengan eragin nahi du, herritar bakoitzak ahalik eta zabor gutxien sor dezan eta bakoitzaren ordainketa ere sortzen den hondakin kopuruaren neurrikoa izan dadin. Sortzen edo kon-

tsumitzen denarekiko ordaintzea da kontua, argia, ura edo gasarekin egiten den tankeran.

Nafarroan hondakin alorrean lanean diharduen 3Ren Konpainiaren ustez, esaterako, ez da batere zuzena Legean jasotzen den hori “sortutakoaren arabeko ordainketa” kontzeptuan sartzea, ez duelako norbanakoak ordaintzen, mankomunitate osoak baizik: “Eremu geografikoaren arabeko ordainketa da”, diote 3Ren Konpainiak. Bestelako norabide eta helburu batekin bada ere, UPNk ere kritika hori egiten dio Legeari, besteak beste. UPNk, PSNk eta PPK osoko zuzenketak egin dizkiote Legeari eta, zuzenketen iruzkinetan aipatzen ez badu ere, PSNk pribatuan onartzen du errausketaren alde egingo lukeela.

Zergaren ordainketara itzulita, 3Ren konpainiak eskatzen dute tratamendu biomekanizatuetatik (TMB) pasa-

tzen diren hondakinak ere –Nafarroako gehienak– zergapetzea, sistema honekin iruzur egiten delako haien ustez. Salatzen dutenez, planta hauetan landu diren hondakinen %80 edo gehiago zabortegira edo erraustegira doaz: “Oro har, Tuterako El Culebrete edo Bizkaiaiko Artigaseko plantetan birziklatzen dena ez da %5era iristen (...) Alegia, enpresek eramaten dituztela hondakinak TMB gunetara zerga gutxiago ordaintzeko edo hauetatik libratzeko”, diote Hondakinen Legeari aurkeztutako zuzenketak biltzen dituen idazkian.

Hondakinen Fondoa

Zerga berritik biltzen den dirua Hondakinen Fondoa sortzeko erabiliko da, eta hau, bakarrik erabili ahal izango da hondakinen kudeaketaren hobekuntzarako; ezingo da Gobernuaren beste behar batzuetara bideratu. Ohiko aurrekontuetatik aparte erabiliko da diru hau eta Nafarroako Gobernuak erabakiko du nola banatu, beti ere alde zuzenetik Nafarroako Hondakinen Erakundeari kontsulta eginez eta hondakinen kudeaketako praktika onak saritzea leheneztuz. Nafarroako Hondakinen Bulegoa eta Nafarroako Hondakinen Erregistroa sortzea ere aurreikusten da legean.

Fondoaren gaian ere Legeari kritika egin dio 3Ren konpainiak: “Ez da egokia Fondoa Nafarroako Gobernuak kudeatzea eta logikoagoa litzateke hori Nafarroako Hondakinen Erakundeak egitea, Fondoaren kudeaketa ez dadin egon gorabehera politikoen menpe”.

Azpiegiturak non?

Oro har, 3Ren Konpainia bat dator Hondakinen Legearen printzipio, ikuspegi eta helburuekin, eta bere kritika nagusia da ez duela behar beste indar jartzen helburuak betetzeko neurrietan. Kritikoak dira gaur egun mankomunitateek duten zerga moldearekin eta beldur dira hondakinen tratamendurako guneak hauek sortzen diren lekuetatik urruntzearekin.

Azken kritika honekin bat dator Sustrai Erakuntza ingurumen erakundea ere. Legean ez da azpiegiturei buruz hitz egiten, hori zehaztea Nafarroako Hondakinen Erakundearen zeregina izango da, baina bere ustez, Legearekin bat ez datozen azpiegiturak ere aurreikusten ari dira, hala nola Iruñerriko Mankomunitateak jarri nahi duen TMB planta

berria, 55 milioi euro kostako dena eta 93.000 tona hondakin jorratzeko gai izango dena. Sustrai Erakuntzak –eta Hondakinen planak berak– hondakinen tratamendua berau sortzen den lekutik ahalik eta gertuen egon behar duela gogorarazten du, eta dioenez, planta hau ez dago filosofia horren baitan.

» Oro har, 3Ren Konpainia bat dator Hondakinen Legearen printzipio, ikuspegi eta helburuekin, eta bere kritika nagusia da ez duela behar beste indar jartzen helburuak betetzeko neurrietan

» UPNk, PSNk eta PPK osoko zuzenketak egin dizkiote Legeari eta, zuzenketen iruzkinetan aipatzen ez badu ere, PSNk pribatuan onartzen du errausketaren alde egingo lukeela

Enpresen erresistentzia

3Ren Konpainiaren kritikarik gogorrenetakoa SDDR sistemarekikoa da, hauen esanetan Legeak ez baitu ia ezer esaten ontzien bilketa sistema honen gainean. SDDR sisteman ontziak makinaz edo eskuz –dendetan adibidez– biltzen dira eta erabiltzaileak utzitako ontziaren ordaina jasotzen du, ontziaren eta honek biltzen duen produktuaren balorea argi bereiziz. Europar hondakinen kudeaketan aitzindari diren herrialdetan asko erabiltzen ari da. Ondorioz, hemen ere Legeak aurreikusten duena baino askoz gehiago zehaztea eta erabiltzea nahi dute Konpainiaok. Legeak dio SDDR sistemak erabili daitezkeela –eta erabiliko direla ere iradokitzen du–, baina zehaztuz lehenik hainbat froga pilotu egin behar direla.

Suma liteke Gobernuak nahi duela sistema hau bultzatu, baina oraingoz arazoak ere ikusten dizkio, besteak beste, gaur egun ontzien birziklatzeaz arduratzen diren enpresek ondo asko gogorarazten diotelako. Ecoenbes eta Ecovidrio dira horietakoak, lehena ontzi arinez arduratzen da eta bigarrena beiraz. Bigarrenaren kasuan, esaterako, berrerabilera baino birziklatzea bultzatzen du, bildutako beira guztia urtu egiten baitu ontzi berriak egiteko. Espainiako Aneabe elkarteak ere (bottilaratutako uraren enpresak biltzen ditu) jarri ditu bere oztopoak, besteak beste, Hondakinen Legeak aurreikusten duelako eraikuntza publikoetan ezingo dela plastikozko botilarik saldu; eraikuntza hauek guztiak ur edan-garria eskainiko duen iturritz hornitu beharko dira.

Hauekin bezala beste oztopo askorekin egingo du topo Legeak, bai hondakinen bilketan atzeratuenak diren mankomunitateen aldetik, eta baita lehengo erregimeneko organigramak oraindik indar handia duten guneetatik ere, esaterako Iruñerriko Mankomunitatea. Uxue Barkosen Gobernuari eusten dioten beste hiru alderdien sostenguarekin, EH Bilduk zuzentzen du Nafarroako biztanleen erdia biltzen duen mankomunitate hau, baina aldaketarako erresistentzia handiak ditu bere baitan, esaterako bere menpekoea den eta 475 langile biltzen dituen Iruñerriko Zerbitzuak SA enpresaren errailetatik datozenak.

Obra publikoetan material birziklatuak erabiltzea derrigorrezkoa izango da Legearen arabera. 2020ko urtarri-laren 1etik aurrera plastikozko poltsak ematea debekatuko da dendetan, salbu eta konpostagarriak direnak; eta data horretatik aurrera, halaber, plastikozko plater eta gisako ontziteriaren salmenta debekatuko da.

Horiek eta beste neurri asko aurreikusten dira Gobernuak bultzatu eta Legebiltzarrak onartuko duen Lege berrian. Helburuak gauzatzea eta horretarako erabiliko diren molde eta bitartekoak ezartzea mankomunitateen menpe izango da. Eta batez ere, herritarren esku. Denen artean, Nafarroako hondakinen kudeaketa goreneko posizioetara eramanez. Eta are garrantzitsua goa, helburuak bete ahal, herritarrak hobeto biziko dira. ■

berria *lagun* egin nahi duzu?

BERRIALagunak BERRIA proiektuari ekarpen ekonomikoa egiten dioten lagunak dira, edozein dela ere aukeratzen duten modalitatea.

Zure ohitura eta baliabideen arabera, aukeratu ondoen datorkizuna:

BERRIALaguna

Hilean 10€ edo **urtean 100€**

Abantailak:

- BERRIA PDFn
- Irakurle gisa zerbitzu berezietarako sarbidea
- Zozketa, gonbidapen eta deskontu eskusiboak

BERRIALagun harpideduna*

Aukeratu harpidetza mota:

Asteartetik igandera, **hilean 36€**

Asteartetik ostiralera, **hilean 23€**

Ostiraletik igandera, **hilean 21,3€**

Asteburukoa, **hilean 15€**

Abantailak:

- Egunkaria etxean edo kioskoan
- BERRIA PDFn
- Irakurle gisa zerbitzu berezietarako sarbidea
- Zozketa, gonbidapen eta deskontu eskusiboak



Euskarazko kazetaritza independente eta kalitatezkoa egiten segitzeko, zure konpromisoa ezinbestekoa dugu.

Idatzi gurekin etorkizuna. Izan **berria *laguna***
Berria.eus/geroazugan • 943-30 43 45



berria
#BERRIAK15

* Ordainketak: urtekoa, bi zatitan, edo lau zatitan



Txell Bonet

“Espetxeaz dugun irudia ez dator bat hango egunerokotasunarekin, askoz okerragoa da”



Saïa Baleztena

@SaioB

ARGAZKIAK: JORDI BORRÀS

Gràcia auzoko Teatre Lliure antzerkian parte hartu duzu. Errepresioa salatzen du antzezlan horrek. Nola joan da?

‘En procès’ antzezlanaren bitartez, Txell Bonet gorpuztu asmoz, casting batean izena eman duen aktore alternatibo bat izan naiz. Gai naiz agertoki batera igo eta banaketa hori egiteko, beraz, erabat

Kazetaria, dokumentalista eta antzezlea da Txell Bonet (Bartzelona, 1975). Ausardia eta borroka ditu bidelagun eta dioenez, artea salaketarako lanabes du. Duela lau hilabetetik, hamar hilabeteko semearekin batera, asteburuetan Soto del Real kartzela izaten du helmuga, bere bikotekide Jordi Cuixart matxinada eta sedizio delituak egotzita espetxeratuta baitute.

bereizi dut nire errealitatetik. Aspaldi ikasi nuen antzerkigintza egia bat esateko fikzioa den heinean, agertoki gainean aktoreek kanal hutsa garela. Ikusleak adierazpen bat ikus zezan nahi nuen nik, baina saiatu arren, zaila izan da jendeak nire baitan Txell Bonet ez ikustea.

Jende anitzek Jordi Cuixarten bikotekide izanagatik ezagutu bazaitu ere, ibilbide luze eta aberatsa duzu bizkarrean.

Bai, konturatu gabe, norbaiten emaztea izatera pasa naiz. Nik lasaitasunez daramat, ez baitut beldurrik Cuixarti lotzeagatik. Ez dut nortasun galerarik. Are gehiago, normala iruditzen zait, eta egoera hain da salbuespenezkoa nik azala utziko dudala, ez bakarrik, preso politikoak aske gelditzeko, baizik eta 155. artikulua aplikazioa amaitzea nahi dudalako. Uneotan, errepresioa azalean bizitzen ari naizelako agertzen naiz komunikabideetan, baina nire betiko borrokaren beste etapa bat besterik ez da hau. Zorionez, Cuixartek eta nik, errespetuz eta babesa emanez, beti lagundu ditugu elkarren arteko bideak.

Urriaren 16ko gauan goibeldu zen Katalunia, Carmen Lamelak *Jordiak* espetxeratzea erabaki zuenean.

Eguna telebistaren aurrean pasa nuen, albistegiak jarraitzen. Aitortu behar dut auzitegitik pasa ziren guztiak, Traperokasu, kautelazko neurriekin aske utzi zituztenez, *Jordiak* ere etxera itzuliko zirela pentsatzen nuela. Edozein modutan nire burua prestatu nuen, kolperen bat etor zitekeelako, eta indartsu egon behar nuelako. 22:00ak jota, albisteak ezagutu eta minutu gutxira, balkoira atera nintzen, auzoko eltzekadak grabatzera. Ondoko apartamentu turistikoan zeuden finlandiarrek galdegin zidaten, zer gertatzen zen. Ez nintzen senarra giltzapetu berri zutela aitortzera ausartu, eta hiritarrak Espainiako Estatuaren kontra zeudela aipatu nien. Tira, une hartan erabakiak ez ninduen ezustean hartu, harrigarria dena da lau hilabete luzeren ondotik preso jarraitzea.

140 egun baino gehiago daramatza Cuixartek espetxeratuta. Zer moduz zaudete?

Indartsu gaude, osorik, badakigu geldirik mantenduz gero ezingo ditugula gauzak aldatu. Beraz, 100 ate jota agian baten bat irekiko dela pentsatuz, etengabe ari naiz mobilizatzen. Emozionalki Jordi eta nire artean konexio berezia dago, testuinguruaren kontra borrokatzen jarraitzeko lagungarria dena. Hori energia iturria da niretzat. Baina, errealitatea oso gogorra da, batez ere isolamenduetatik. Egoera luzatzen ari da, eta gure semearen lehen urtea lapurtu izana ez digu inork itzuliko. Sakrifikatzen ari gara eta, espero dut, erabat ez egitea.

Hamar hilabeteko semetxoa duzue. Nola eragin dizue espetxeratzeak zentzu honetan?

Sentipen ezkorrak ez jaurtitzen ahalegintzen naiz. Bizitzan gertatzen zaizkigun pasarteak ez daude gure esku, baina aldiz, gure esku dago horiei aurre egiteko modua. Agian alboan dugun familia horrek ez du dispartzio fisikorik, baina ezin urrunduago daude mugikorra begira daudelako. Agian gure testuinguruak balio du, Euskal Herrian aspaldi nozitu duzuen dispartzioa gure azalean pairatu eta salatzen. Zigorrek motibodunak direnean ere, eta espetxea beste mende bateko lanabesa dela kontuan hartuta, familiei erraztasunak jarri behar zaizkie. Tira, ez dut nahi nire semearentzat bere aita ezezagun bat izatea. Eta krueltasun hau 20 astez adorez eusteak, ez du egoerak berezkoa duen ankerkeria kentzen.

Astebururo joaten zarete Soto del Real espetxera.

Nire semeak 10 hilabete bete berri ditu, 25.000 km daramatza bizkarrean. Denbora, diru eta energia galera da, nik beste edozein kausarako bideratuko nukeena. Espetxeaz dugun irudia ez dator bat hango egunerokotasunarekin. Askok okerragoa da errealitatea. Nik bati baino gehiagori gomendatu diot Estremera edo Soto del Realgo espe-

txeak bisitatzea joatea: joan-etorriak eta presondegi barruan egoteak aldatzen du espetxeaz duten irudia. Ariketa interesgarria da.

Abenduaren 21eko hauteskundeetan atarian batek baino gehiagok uste zuen presoak aske geldituko zirela. Hilabeteak aurrera doaz, aldiz, eta ez dago berririk.

Egoera askotatik pasa gara, denbora aurrera doan heinean zailagoa da testuingurua. Urriaren 1eko kargen gogortasunaren ondotik uste genuen, *Jordien* atxiloteta zuzenbide estatuen mugak kontrolatzeko arazoaren beste ondorio bat zela, baina egoera baretuko zela, noski. Irakurketa hori zailtzen da, hilabeteak igarotzen diren heinean: argi dago baretzetik urruti, arrotzatzen ari dela. Baina ezin dugu itxaropena galdu.

Bartzelonako Udalak pasa den astean dispersioa salatu eta preso politikoak gerturatzeko ekitaldia antolatu zuen.

Zubiak eraikitzea ezinbestekoa da eta ezin hobeki ikusten dut, askotariko ñabardurak dituelako. Batetik, 41 zinegotzietatik 29k salatu zuten atxiloaldi prebentiboa, eta beste hainbat ordezkari sindikal eta elkarterekin batera eskatu zuten preso politikoan gerturatzeko. Ekitaldi horrek agerian uzten du gauzak ez direla beti beltzak edo txuriak, eta bakoitzak, bere aukeren barruan, lan egiten duela bere ekarpena egiteko. Agian baten batek ez du begizta horia janzten, baina gaiaren inguruan idazten du, Jordi Évolek bezala. Ez dago laguntzeko modu bakar bat bakarrik.

PSCK aldiz ez du Bartzelonako Udalaren eskaria babestu. Zer deritzozu?

Bestearen azalean jartzeko enpatia gaitasun erraldoia dut, eta seguruenik nahiko nuke tarteka besteak ere nire azalean jartzea. Baina, PSCKren erabakiari dagokionez, esango nuke ez direla eroso sentitu eskaria Barcelona en Comú proposatu duelako. Ezin dugu ahaztu duela hilabete gutxi eten zuela Colauk PSCKekin zuen gobernu ituna 155. artikulua babestu izanagatik. Hala ere, baikorra naiz, agian etorkizunean eroso sentituko dira salaketa hori elkarre independente batek proposatzen badu. Eurek onartu dute atxiloaldi prebentiboa neurrigabea dela, eta seguru nago salaketa hori egiteko beste moduren bat aurkituko dutela.

Behin baino gehiagotan azpimarratu izan duzu, garrantzitsua dela zubiak eraikitzea.

Aurrez xedatuta gaudelako elkarbizitzera. Katalunia independentea izango balitz, gure bizilagunekin ongi egon beharko ginatke, bizilagun indartsuak izatea ezinbestekoa den heinean. Egia ispilu hautsi bat da eta irtenbidea beti dago erdibidean. Ez dugu bando gudaririk nahi, muturreko jarrerak ez dute laguntzen. Beraz, adostutako erabakiak premiazkoak dira.

Kazetaria izanik, zein iritzi duzu Kataluniaz han eta hemen egiten ari den jarraipenaz?

Ez dut Espainiako komunikabideen jarraipenik egin, gehiago jarraitu dut nazioartean zabaldu dena. Hori bai, Jordik espetxean Espainiako telebistak izan ditu bakarrik eskura, eta behin baino gehiagotan aipatu dit okertutako kontakizunak nagusi direla. Duela egun gutxi larritu nintzen Cospedal andereak, Espainiako hedabiderik iruzurtienaren jabe den Eduardo Indaren aurrean, TV3 kritikatu zuenean. Kezkagarria da.

Zein da Kataluniako testuinguruaren zerumuga?

Tira, zerumuga sekula iristen ez zaren gauza bat da... Besteen esaldiak aipatzea hainbeste maite duen David Fernàndezek behin esan zuen, "demokrazia nahi genuen independentziara iristeko, eta orain, independentzia nahi dugu demokraziara iristeko". Norbaitek uste badu Katalunia independentea lortuz gero dena amaitzen dela, oker dabil. Ezkontza prestatzeagatik nekatuta iristen diren bikotekideei gertatzen zaiena gertatuko zaie: orduan hasiko da elkarbizitzaren ikasteko lana. Erronka handiak ditugu. Orain errepresioari aurre egiten ari gara, baina gauza asko dugu sakonek aldatzeko. Aberastasunaren banaketa desagokiaren ondorioz sustatu duten immigrazio oldarkorra kudeatu beharra dago, eta, etorkinak onartzea ezinbestekoa den arren, lan egin behar dugu jatorrizko herrialdeetan gaur egun nagusi diren gobernu ezegonkorrek ekiditeko. Edo ingurugiroari dagokionez, adibidez, nork daki, hemendik 10 urtera ez dugu bidegabeki espetxeraturako preso politikorik izango, baina agian muturra hausten ariko gara ura edo energiaga-

"Gure semeak 10 hilabete dauzka eta 25.000 kilometro ditu bizkarrean dispersioagatik"

"Jendeak egin zuen posible urriaren 1a, jarrera hori mantentzea da garrantzitsuena"

tik, edo desertuak Espainia erdia hartu duelako.

Zer beharko luke izan derrigorrez Kataluniako Errepublika independenteak?

Iristear dagoena oso kezkarria da. Kolektibitate eta estatu sena ezinbestekoa izango da. Hiritarren boteretzear sinisten dut. Jendeak egin zuen posible urriaren 1a, jarrera hori mantentzea da garrantzitsuena. Hori hamaika herrialderen independentzia baino aberatsagoa da. Agian urte batzuk beharko ditugu erabat gaiztotuta dagoen sistema hau berrerekatzeko, baina hori da gakoa. ■



informazio osoa
www.bertsozale.eus



MARTXOAK 9

LEITZA ATEKABELTZ GAZTETXEAN. 22:00ETAN.

ALDATZEA KOMENI – IBARDIN: HIRU TA LAU DIRA ZAZPI

ERRATZU ZUBIPUNTA OSTATUAN. 21:30EAN.

ADDAMS FAMILIA – TOPA BARDO KOPAI

MARTXOAK 11

LESACA ARRANO ELKARTEAN. 17:30EAN.

UNIBERTSOLARIAK – (LARRAUN DA ARAITZ) BI DOZENA

Errezilen eta Alegian etxe berriak

Eraikitzen hasi aurretik euskararen hauskortasuna neurtu dute

“Errezilen etxe gehiago egingo direla, eta zer? Euskara ahultzeko beldurra? Baina gu beti izan gara euskaldunak eta hala izaten jarraituko dugu”. Ez dugu erreizildarraren ahotik entzun esaldi borobil hori, baina izan zitekeen, halakoxea baita aldartea biztanle berriak etorriko badira ere euskal komunitatea arriskuan ikusten ez denean. ARGIAk Xebero Agirretxe herriko alkatearekin, Nekane Zinkunegi zinegotziarekin eta Arritxu Zelaia hizkuntza aholkulariarekin hitz egin du. Hirigintza plana eta euskara zaku berean sartu dituzte eta “bonbilla piztu” zaie. Alegian beste hainbeste egin du Inhar Agirrezabal arkitektoak, lantalde zabala ondoan duela.



Onintza Irureta Azkune

@oirureta

ARGAZKIA: DANI BLANCO

UEMAk, Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak, egin du akuilu lana Errezilen. HAPOa (Hiri Antolamenduko Plan Orokorra) prestatzen ari zirela jakin zuen UEMAko teknikariak eta euskara zinegotziari eta alkateari esan zien momentu aproposa zela ELEa egiteko, hau da, Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa. Ez zuten ezagutzen hirigintza plan batek herrian izan zezakeen eragin linguistikoa neurtzeko tresna, baina bitan pentsatu gabe baietz esan zuten.

Hirigintzak eta euskarak nolako lotura izan dezaketen ez zuten hausnartuta. Errezilen %89,33k euskaraz daki eta erabilera %94,10ekoa da. Zinkunegi zinegotziak horrela dio: “Halako kezkarik ez genuen, zentzu horretan nahiko erlaxatuta bizi gara. Euskaldunak izan gara eta izango gara, hori bermatzeko ezereen beharrik ez daukagula pentsatu izan dugu”. Agirretxe alkatea paretsu aritu da: “Kale bat nola urbanizatu, etxebizitzak banaka egin, blokean, denak batera edo lehenengo batzuk eta tarte batera besteak... Kontu horiek euskararen eragina izan dezaketela? Horrelakorik ez genuen uste”.

Zelaia hizkuntza aholkulariak Orexako, Munitibarreko eta Errezilgo ELEak bideratu ditu eta erreizildarrentzat giltzarria izan zen Munitibarrekoa entzutea; 462 biztanle eta asmoa 200 biztanle gehiagorentzat etxebizitzak egitea.

Solaskideei aipatu diegu hamar urtean (2001-2011) euskararen ezagutza %9,2 jaitsi dela Errezilen. Ez diote garrantzi berezirik eman jaitsierari eta ez dira konturatu beherakada bat zetorrela hainbat etxebizitza egin zen garaiarekin.

Zinkunegik dio orain gaia bestelako antiojoekin ikusten hasi direla, hirigintza eta euskara natural uztartzen: “Hirigintza plana osorik edo erdizka bete, bizilagun berri asko edo gutxi etorri, kontu honek txipa jarri digu. Turistak ere etortzen dira Errezila eta hor zerbait egiteko izango dugu. Udalekuetan atzeritarren umea ibili zen eta konturatu ginen gurasoek etxera bidalitako oharrak ez zituztela ulertzen, euskaraz baitzeuden. Ele bitan hasiko gara oharrak bidaltzen? Ez, ez. Gure hizkuntza oso osasuntsu dago, baina erne ibili behar dugu. Etorri denaren hizkuntza eskubideak errespetatuko ditugu,

baina gureak urratu gabe”. Zinegotziak ahalduntzea aipatu du, alegia, hizkuntza kontzientzia landu duen herriak halako egoeratan negoziatzeko gaitasun handiagoa duela. Hari horri tiraka atera da endogamiaren kontua. Hizkuntza aholkulariak aipatu baitio euskara ez dakiena bakarria bada moldatzen errazagoa dela, baina kolpera hamar etorritz gero nekezagoa dela dezentez. Oreka nola lortu. Jende askorentzako etxebizitzak eraiki eta euskara ez dakitenak bada toz, komeriak hizkuntzari eusten; era berean, herria bizirik nahi dute, hustutzeari izkin egin. “Badirudi ez dugula nahi kanpotik inor etortzerik. Ez da horrela, baina kezka eragiten digu”.

Ondoko herrira begira

Ez dute inoren etxean sartzeko asmorik, baina ezinbestean alboko herriaren adibidea jarri dute mahai gainean. Bidania-Goiatzek 2001ean 427 biztanle zituen eta 2016an 514. Etxebizitza berriak egin eta kanpotik heldu da jendea. Hasieran, lotarako etxe gisa gehiago ziren erabiliak. Gaur egun herri-bizitza gehiago egiten dute biztanle berriek.



Hainbatek ez daki euskaraz. Udalean euskaraz ez dakien zinegotzia dute. Tristuraz hitz egiten dute gertatutakoaz, eta ez dute esan nahi kanpoko jenderik ez dutenik nahi. Herrian hizkuntza kontzientzia landu eta hirigintza plana tentuz egin behar dela uste dute. Bizilagun berriak herriko hizkuntzara moldatzea nahiko lukete, eta ez alderantziz.

Eta ELEaren emaitza nola hartu dute?

ELEak dio hirigintza planean aurreikusitako etxebizitza guztiak egingo balira (ez da izaten ohikoa denak egitea) hizkuntza eragina moderatua litzatekeela, hau da, euskara ezagutzaren beherakada %4koa litzateke. Zinegotzia larrituta sentitzen da zifra ikusita: “%4ko jaitsiera, 600 biztanleko herrian pentsa zenbat den! Era berean, azterketak dio eragin moderatua dela hori”. Hizkuntza aholkulariak erne ibiltzeko eta era berean lasaitzeko arrazoiak eman ditu. Batetik, nahiz eta %4ko aurreikuspena hipotesirik txarrena den (etxebizitza guztiak egin, denak bete, eta aurreikusitako erdaldun kopurua iritsi), ehuneko ez da gutxiestekoa, batik bat kon-

tuan hartuta aurretik %9,2ko jaitsiera izan dutela. Bestetik, Errezilen euskara trinko dago, babes sistema bat dauka, UEMAn dago herria, hizkuntza plangintza bat dauka. Beherakada hipotetikoari galga jartzeko bitartekoak baditu. Beste udalerrri batzuek ez dute halakorik.

Alegian ere bai

UEMAko kide da Alegia. ELEa egiteko lantaldean aritu dira Unai Iraola alkatea, Mikel Artola euskara zinegotzia, Goizane Arana UEMAko teknikaria eta Inhar Agirrezabal udal arkitektoa. Arkitektoak proposatu zion Udalarari ELEa egitea eta berak egin du. Alegiako hirigintza planaren ikuspegia kontuan hartuta, erabat naturala egin zaio arkitektoari ELEa egitea. Planak ekologia, genero eta gizarte ikuspegia jasotzen ditu, eta beraz, gizarte ikuspegian, bete-betean, datoz herriko kultura eta hizkuntza.

Udaleko kargu politikoak hizkuntzaren egoeraz kezkatuta sumatzen ditu. 2011n euskararen ezagutza %76,7koa zen, ordea, migrazioek eragin zuzena izan dute ezagutzan. Joan-etorri handia dago herrian. Zein eragin izango luke etxebi-

ERREZIL

(GIPUZKOAKO UROLA ERDIA)

- 600 biztanle, atzerritarrak 35.
- Euskara ezagutza: %89,33¹
- Erabilera: %94,1²
- Aurreikusitako etxebizitza kopurua: 35, oraingoaren %11ko igoera.
- Proiekzio indizea: %4 jaitsiko litzateke euskara ezagutza.

ALEGIA

(GIPUZKOAKO TOLOSALDEA ESKUALDEA)

- 1.756 biztanle, atzerritarrak 194.
- Euskara ezagutza: %76,74¹
- Erabilera: %77,60²
- Aurreikusitako etxebizitza kopurua: hipotesi txikiena (134 etxebizitza berri) eta hipotesi handiena (85 etxebizitza huts bete eta 161 berri egin).
- Euskararen proiektio indizea: hipotesi txikienean %4,09ko jaitsiera eta handienean %6,51koa.

1: Eustat 2: Soziolinguistika Klusterra

Argazkian, Alegia.

tzak egiteak hizkuntzan eta herri giroan? Lau etxebizitza-plan hipotesi egin dituzte. Lehen hirurek eragin moderatua izango lukete eta laugarrenak larria.

Ezkaratzean topo egiteko etxeak

Etxeak prezio librekoak, tasatuak, babes ofizialekoak... Horren garrantziaz hitz egiten aritu gara Agirrezabal arkitektoarekin. Alabaina, berak fokua beste non-bait jarri du: “Arkitektura soziala egin nahi badugu eta euskara bultzatu nahi badugu auzokoek elkar topo egiteko moduko etxeak egin behar ditugu. Betiko zortzi ateko ezkaratzea diseinatuko dugu ala leiho guztien azpitik pasako den pasilloa egingo dugu? Jendeak topo egin behar du, baina bai, zailtasunak ditugu”. Arkitektoak esan nahi du barrura begirako bizitza gailendu dela gure artean eta espazio komunak sortzeak erreparatzen dizkigula. Batek eta besteak esan diote elkarguneak kalean sortu behar direla. Kalean ordea, jatorrizko herritarrak gero eta gutxiago dabilta, eta ohituraz errazago biltzen dira atzeritik etorritako komunitateak, sahararrak adibidez. Horiek ez dira euskaraz ari. ■

Aguxtin Errotabehere, *La grande mutation* liburuaren egilea “Lur Berri beste molde batez garatu da, euskalduntasunaren aurka zoritxarrez”

Baigorriarra. Laborari semea. Laborantza ikasia. Ingeniaria. Amikuzeko Lur Berri kooperatiban aritua. Kazetaria ere bai azken urteetan. Erretretan dago, baina lanean ari. Jean Pitrau, *La révolte des montagnards* liburu esanguratsuen ondoren, Jean Errecart, *La grande mutation* (Elkar) eman du argitara. Amikuze eta Jean Errecart laboraria, sindikalista eta politikaria ezagutzeko baitezpadako liburua.



Mikel Asurmendi

@masurmendi

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Jean Pitrau zuberotarra ezagutza eman zenuen eta segidan Jean Errecart baxenabartarra. Zer harrera izan du bigarrenak?

Jean Errecarten liburuak jakin-min handia sortu du Amikuzen, Jean Pitraurena bezala, nolazpait. Alta, Donapaleun Jean Errecart izeneko eskola dago, eta anitz jendek eta bereziki gazteek ez dakite nor izan zen. Eguneroko bizitza biziki fite doa, gaurko berriek atzokoak estaltzen dituzte. Hedabide berrien gain-informazioaren bitartez gauza asko sarzzen digute buruan. Hara!

Gazte garaira itzuli zara nolabait, mundu hura sakonetik ezagutza eman duzu pertsona hauen bitartez.

Bai. Gutxi edo asko, ene aita Pitrau zalea zen, baita Errecart zalea ere. Hamar urteko diferentzia zuten, eta biek, bakoitzak bere moldean, Euskal Herriaren alde lan egin dute. Abantaila edo xan-

txa ukan dut biak ezagutu ditudalako amiñi bat. Baina, badago ere aipatzea merezi duen jende gehiago. Konparazionera, Bernard Massondo. Lehenbiziko etxetiarren –maizterrak– borrokak irabazten lagundu zuena. Edonola ere, liburuari eta pastoralari esker orain badakite nor den Pitrau. Espero dut Errecart ere ezagutua izatea, haren espiritua arrunt baztertua izan baita Amikuzen, Lur Berri kooperatiban ia ez da existitzen. Zabalik elkarteak *Otsail ostegunak* hitzaldi saioen kariatara egin duen moduan, tokiko Lizeoan ere merezi luke ezagutza ematea. Orain arte ez dute deus egin, ordea.

Ezagutu dezagun Jean Errecarten garaia: Amikuzeko Oragarren sortua 1909an.

XX. mendearen hasieran krisi larria izan da Eliza eta Errepublikaren artean, 1905ean Estatua eta Eliza bereizi zituen

legea ezarri zen. Eliza kontserbadoreenaren eskuetan zegoen, politikariak ere bere menpeko zituen, eta Elizaren aurka asaldatzen ziren. Gatazka izugarria zen. Eliza erregeen aldekoa izanez, Errepublikaren kontra zen.

Euskal Herrian berriz, Jean Ibarregaray politikaria jainkoa zen. Hura eta haren jarraitzaileak Errepublikaren kontrakoak ziren arrunt: “Guk zerendako lagunduko ditugu eskola giristinoak, gure kontra mintzo badira?”, zioten





errepublikazaleek. Hartaz, mundu euskaldunak mundu errepublikanoa galdu du, apezak euskararen aldekoak ziren eta Errepublikaren aldekoak apezan aurka oldartzen zirenez, euskaldunek ez zituzten maite.

Hemen, Elizak dena menperatzen zuen. Sindikalismoa, kooperatibak, hautetsiak edo Herriko Etxeak kontserbadoreen esku zeuden. Jauntxoak ziren nagusi. Alta bada, II. Mundu Gerlaren ondoren,

Elizan mugimendu progresistak izan dira, *Le sillon* laborari agerkariaren inguruan ari ziren, hain zuzen ere Errecart horren barne zen. Talde progresista batek JAC delakoa (*Jeunesse Agricole Catholique*) sortu dute. Gazteek eskola hamalau urtez geroztik uzten zuten, ez zuten fitsik formatzeko. Errecartek izugarritzko lana egin zuen. JAC *Euskaldun Gazteria* bihurtu zen Euskal Herrian. Jean Pitrau ere ondoan aritu zen. Adibiderako, ordura arte sindikalismoa jauntxoan esku zen, haiek ez zuten deus mugitzea nahi. Laborariak sekulako indarra zuten hauteskundeetan, zenbat eta laborari gehiago beren alde izan gero eta errazkiago hauteskundeak irabaztea. Jauntxoek baserria immobilismoan atxiki zuten beren onetan.

» “Errecart apezgoaren bidea utzita Bordelera doa, eta han, gerla aitzin, burua aldatzen zaio. Faxistekin alimaleko kalapitak izan zituen, anarkistak ezagutu zituen eta bere ikusmoldea arras aldatu zen”

Amikuzeko aldaketa handiaren klabeak eman dituzu liburuan, eta horien artean “isilpeko iraultza” gisako izan zela diozu.

Gazte horiek ohartuko dira ezin bizi dela laborantz. Nekazaritza politika aldatu behar dela, gazte laborariei etxaldeak handitzeko baimena eman behar zitzaizela, legeak eta laborari zaharrak alde batera uzten. Lege batzuek baimentzen zuten zaharrek etxaldearen arranda [errenta edo alokairua] gazteei utzea. Lurrak salgai baziren laborariei lehen aukera ematea erosteko, baita laborariak elkarretaratzea salmentak egiteko eta formazioa ukaiteko. Baina, praktika ez zen batere horrelakoa eta hor hasten da “isilpeko iraultza”, nekazaritza politika arrunt aldatu zuena.

Jean Errecartek aldaketa ekartzen lagundu zuen: herriko auzapeza, departamentuko kontseilaria, diputatua eta senataria izan zen.

Errecart guti ezagutu dut. Alabak gehiago, bistan da; Maite bereziki. Ikasketak egiten ari nintzela, Lur Berrin egin nuen hiruzpalau hilabeteko ikastaroa. Errecartek bizitza zinez konplikatua zuen: astelehenean Pauen ematen zuen, *Parlement de Navarre* delakoan. Asteartean Parisera joaten zen gaeuz, han egoten zen ostegunera arte; ostiralean Donapaleura, Lur Berriko presidentea baitzen. Larunbata ekitaldi ofizialak, igandean familia, meza eta Oragarreko Herriko Etxeko lanak, auzapeza baitzen. Eguneroko horrek ematen digu haren heina.

Lehenago baina, bere ideologian aldaketa gisako bat eman zen.

Errecart laboraria zen egunerokoa bizitzan. Bere ibilbide politikoa sindikalismoan abiatu zuen, Jean Pitrauk bezala. Alta, Errecarten aita Jean Ybarnegarayren jarraitzailea zen. Hura jainkoa zen, Euskal Pilotako Federazioko presidentea, buru ikaragarria, eskuindarra. Errecart hiru otto [osaba] apez zituen familian hazi zen; kontserbadurismoan hezia eta bera ere seminarioan ikasia. Baina apezgoaren bidea utzita Bordelera doa, eta han, gerla aitzin, burua aldatzen zaio. Faxistekin alimaleko kalapitak izan zituen, anarkistak ezagutu zituen, eta bere ikusmoldea arras aldatu zen. Orduan, giristino geldituz betiere, progresismo aldera joan zen kontserbadurismoan gelditu ordez.

Laboraria zen, hori ere gakoa da.

Baita hori ere. Elea baino inportanteagoa zuen ekintza. Ez zen lehenagoko politikariak bezala, hizlari eder trebea, jendeak txalotzen zuena. Errecarteren lema “egin, egin eta egin” zen. Ez zen politikari tradizionalak bezala, berak traktorea hartzen zuen. Laborari jite hori agerikoa da. Ez zen bakarra noski. Erran dudana bezala, Massondo familia hor zen. Etxetiarren aferari buruz lan gaitza egin zuten haren ondoan, sindikalismoan eta etxetiarren alde gogotik borrokatu zuten. Errecart haien bitartez hurbiltzen zen etxetiarrengana.

Laboraria Parisen legebiltzarkide.

Errecart legebiltzarrean ari da, eta ezkerreko eta komunistek –eta gerla ondoren



» “Eñaut Etxamendik oso hurbiletik ezagutu zuen Errecart. Haren lekukoa hartuko ote zuen zurrumurruak izan ziren. Errecart euskaldun peto-petoa zela dio Etxamendik”

boterean dauden indarrek orobat- bultzada bat eman nahi diote laborantzari, jateko ez baitzen aski, gainera Frantzia lurralde azkarra zen. Errecartek “lehenik jatera eman behar diegu gure herriarrei, baina ez hori bakarrik, mozkinak behar ditugu saldu eta dibisak bildu tresneria erosteko”, zioen. Beraz, bere lehenetariko ideia lur berriak egitea izan zen, lur onak baitziren Amikuze eskualdean. Baldintza onetan, ez dohai- nik, baina laguntza tipiarekin asko erdiesten ahal zela ikusten zuen. Sekulako lur berriak egin ziren orduan, baina ez bakarrik Amikuzen. Iholdi, Bidaxune eta kostaldean ere bai. Hamabost mila hektarea inguru lur berritu edo konpondu ziren. Hori izan zen aldaketa handia, *la grande mutation* deitua.

Zer izan zen etxetiarren afera?

Etxetiarrek urte bateko kontratua zuten etxeko jabearekin. Artoa ereiten zelarrik, “lau lerro nagusiarentzat sei lerro etxetiarrentzat”, erraten zen. “Ogia ere [garia] erdi eta erdi”, izaten zen. Etxetiarrek ez zuten botere izpirik erabakitzeke. Beraz, egiten zuten gutzirako

nagusiaren baimena behar zuten. “Lur berriak” egiteaz gain, hori baino gehiago nik uste, etxetiarrek beren lurren jabea bilakatzea izan zen aldaketa handia. Egiari zor, lehenengo nagusien artean denetarik zegoen, onak ere bai, baina baziren benetan gaiztoak, haiek zapaltzen zuten laboraria, laborantza feudalizatzen...

Halarik ere, legeak aldatzea ez zen erraza izango.

1946an, Erresistentziako Kontseilu Nazionallean, alemanak lekutu ondoren, komunistek, gaullistek, MRPko zentristek (Errecarten alderdia) eta progresistek lege andana aztertu zuten. Lege horietako batek zioenez, etxetiarrek jabeari galdetzen badio alokairua (ordura arte, *Fermage* delako legeak bederatzi urterako finkatzen zuen prezioa) nagusiak eman behar dio aukera hori, edo nagusiak beretako hartu behar du lurra. Hau da, edo etxetiarrek alokatzen du edo jabeak bere gain hartzen du. Euskal Herrian hala ere etxetiarrek asalatu ziren. Liburuaren azken orrialdeko gutunak dioenez, 20 labora-

MARSHALL ETA MONNET PLANAK

“Bi planak ez ziren berdinak izan, *Marshall plana* estatubatuarrek ezarri zuten komunisten beldur. Komunismoa European nagusituko zela pentsatzen baitzuten. *Monnet plana* delakoa Ekonomia Kontseilu Nazionalaren barnean garatzen da. Bere bultzatzaileak oso progresistak ziren, orduan sortu zen geroko eredu sozial arrakastatsua. Komunistek eragin handia zuten Frantzian. Errusian planak bost urtetarako egiten ziren: ‘Horrenbeste altzairu, bihi edota ardo ekoiztuko dugu epe jakin batean’. Hau da, planifikazioaren bidez garapen ekonomikoa azkartzen zen. Frantziarrek begi onez hartu zuten ideia hura. Frantziako ereduak hala ere, salbuespena izan zen. Frantses erako planifikazio bat sortu zen, akuilatzailea. Hasieran Monnet bezala ekarria, baina gero II. III. IV. eta V. plana ere izan ziren. Horrek Frantziako ekonomia erabat aldarazi zuen”.

rik izenpetua, nagusi batzuek nahi zuten beretzat lurra atxiki eta etxetiarrek morroi ezarri. Legea hemen biziki poliki aplikatu da, jendeak ez baitzekien frantsesek kasik. Oso nekez asaldatzen ziren jabearen kontra eta emeki joan da aldaketa. Amikuzen beste lekuetan baina luzeago joan da etxetiarrek jabea pasatzea.

Amikuzeko eta Donapaleuko egungo jendartea ezagutzeko ezinbestekoa da iragana ezagutzea. Nola osatuta zegoen nagusigo hura?

Antzinatek heldu da noblezia hura, gazteluen jabeak ziren. Euskal Herria, Bordele, Paue edo Parisko gazteluen jauntxoak han-hemenka bizi ziren. Nafarroako Erresuma kari, bazegoen auzitegia, jujeak eta boteredunak. Baze- goen ere Donapaleuko burgesia ttipia, komertziantek. Orduan, baliabideak zituztenek lurra erosten zuten, merkataritza anitzek ere hori egin zuten. Baziren beraz, kanpoko nobleak eta lekuko burgesia ttipia. Horrek izugarritzko eragina izan zuen Errecarten bizitza politikoan, Errecartek sekulan ez zuen erdietsi bo-

“ERRECARTEK JAUNT XOAK KANPORATU ZITUEN LUR BERRI KOOPERATIBATIK”

“Lur Berri II. Mundu Gerra aitzin sortu zen, ordurako sindikalismoa indarrean zegoen. Ongailuen eta tresnerien behar handia zen, baina horiek denak jauntxoaren esku zeuden. Jauntxoek dena menperatzen zuten politikoki: laborantza mundua, sindikalismoa barne. Gerla ondoren gauzak pixka bat aldatuko dira, belaunaldi berriak sortu direlarik jende eta buru berriak hasiko dira laborantzan.

1954an, Jean Errecart laboraria eta sindikalista buru, gazte talde bat sartu da Lur Berriko administrazio kontseiluan dena itzulipurdikatzeko. Lehenagoko jauntxo denak kanpo ezarri dituzte. Errecartek bazuen ideia oso argia laborantzaz, ‘artoa saltzeko ez dugu kooperatibaren beharrik, kooperatiba behar dugu teknika eta ekoizpen berriak guhaurrek egiteko’, erraten zuen.

Idea berriak ekarri zituen, hala nola, hazitarako artoa eta abelazkuntza behar

bezala garatu beharra. Teknikariak sartu zituen kooperatiban laborarien laguntzeko, bultzada bat emateko kooperatibari, baina, haren ideiak zoritxarrez ez dira asko garatu Lur Berrin.

Lur Berrin, boterean dauden politikarien espiritua nagusitu da gaur egun, Jean-Jacques Lasserre-ren espiritua, besteak beste. Errecartek langileei buruz ari zen eta langileentzat. Areago, haren espiritua sobera euskalduna zela zioten, eta ez zuten begi onez ikusten. Lur Berriko garapen azkarraren ondorioz, garai batean sosa bazegoen. 1980. urteetan, Euskal Herriko hainbat laborarik –piperra edota gazta ekoizteko– laguntza behar izan zuten. Lur Berriri laguntza eskatu zioten, baina ezezko biribila ukan zuten. Lur Berriko Euskal Herria bazter utzi du, beste molde batez garatu da kooperatiba, eta zoritxarrez, euskalduntasunaren aurka”.

zen gehiengoa Donapaleun, hiria beti kontra izan zuen. Etxetiarrek ontsa esplikatzan dute hori.

Nola?

Arras menpe zituztelako, laborariak eta bereziki etxetiarrek mespretxatuak izan dira. Lurjabeen errana: “Nire alaba ez da sekula ezkonduko laborari batekin”. Donapaleuko hiritarren artean jarrera feudalak oraindik sentitzen dira, laborarietako begiradan. Amikuzeko soziologia ezagutzeko hipotesi bat emanen dizut: Donapaleuko jauntxoak eta komertziantek frantximantak ziren, euskal munduaren etsaiak. Egun espiritu hori hor dago. Etxetiarrek menpekoak izan dira, baina hauek ere lorpen ekonomiko nahi zuten, zerbaiterako balio zutela erakutsi, eta garapen ekonomikoari eman diote lehentasuna.

Jean Errecarten euskaltasuna gogoratzek merezi du ere bai.

Otsail ostegunak gure saioaren kariatara Eñaut Etxamendi izan zen hitzaldian. Berak oso hurbiletik ezagutu zuen Errecart. Errecart zendu ondoren, Etxamendik haren lekukoa hartuko ote zuen

zurrunmurrak izan ziren. Etxamendik mintzaldian erran du Errecart euskaldun peto-petoa zela. Errecartek bere idazkietan euskal kultura, euskara eta euskalduntasuna aldarrikatzen zituen hauteskundeetan, eta zaila zen zinez, idazkiak elebitan egiten zituen, garai hartan giroa arras kontra bazen ere.

Enbata mugimenduaren inguruan ibili zen.

1960an sortzen da lehenbiziko euskal mugimendu politikoa: Enbata. 1963an Errecart Itsasun zegoen, Iparraldeko lehen Aberri Eguna kari. Bere suhia Michel Eppherre Enbatakoa zen; George alabaren senarra. Enbataren espiritua, hastapenean, gure nortasunaren eta hizkuntzaren aldekoa, ongi ikusia zen, edo ez hain gaizki bederen. Errecarten alderdikoe (MPR) ongi ikusi zuten. Baina gero, bestaldekik iheslari anitz heldu zen hona, horiek aritzeko beste ikusmolde bat ekarri zuten, indarkeriaren erabileraren eraginez, Errecartek eta ingurukoek “guk ezin diogu horri jarraitu” erran zuten. *Indar berri* mugimendua sortu zuten. Luzaz iraun ez zuena. ■



TALLERES
MITXELENA
S.COOP.



Torno bertikala: Ø 4.200 x 2.000
Fresadora: 10.000 x 3.500
Barrenatze mekanizatua

Eziago Poligonoa · Zikuñaga Auzoa
20120 HERNANI (Gipuzkoa)
T 943 55 25 12 - 16 · F 943 55 28 16
info@talleresmitxelena.com

www.talleresmitxelena.com



tradebi@tradebi.com

**Zure jendea,
zure hedabidea,
zure iragarkia.**

Jarri publizitatea hemen

ARGIA

943 371 545
publiz@argia.eus
www.argia.eus/tarifak



OTEAK DIRUA BALIO ZUENEAN

Sinestezina dirudi, baina hala zen. Egun mendian ia nonahi topatzen dugun lore horiko landare arantzadun horrek dirua balio zuen iraganean; leku batzuetan bai behintzat. Izan ere, garai batean otea garrantzitsua zen. Aziendari azpiak egiteko edota jaten emateko mozten zen; sutarako ere erabiltzen zen, etxerako edota karobiak pizteko; baita arragoetarako ere. Eta bere ustiaketak sortu zituen bizilagunen haserrealdiak, herrien arteko ika-mikak, auziak eta arauak jarri beharra. Dokumentu zaharrak dira hori guztia egiaztatzen digutenak.



Iñaki Sanz-Azkue

Egun ez dira asko izango baserrirako otea mozten jarraitzen dutenak. Baina hori egiten zela gogoan dutenak oraindik badira, eta ez gutxi. Batzuk, aito-na-amonen edo gurasoen garaian ikusi zutelako, eta besteak, gaztetan langintza horretan aritu beharra izan zutelako.

Otea nonahi ikus dezakegu egun; gure basoak ordezkatzan dituzten sastrakadietan, eta sarri bide eraiki berrien ezpondatan ere bai, batez ere isurialde atlantikoan. Baina dokumentu zaharren arabera, XVI. eta XIX. mendeen artean otea baliabide preziatua zen, eta bere mozketa bizilagunen eta udalen arteko ika-miken iturri ere izan zen herri batzuetan. Beraz, ez ziren gutxi izan bere ustiaketa arautzeko hautua egin zutenak. Esaterako, Hernaniko Udal Artxi-boko dokumentu zaharren arabera, XVI. eta XVII. menderako otea mozteko baimena eskatu beharra zegoen udalean, eta erreal bat ordaindu moztuko zuen pertsona bakoitzak.

Chillida-Lekun otea eskulturen orde
1663an, egun Chillida-Lekun dagoen Zabala baserrian ez zen eskulturarik

izango, baina otea, itxuraz, bazen. Sevastián de Zavalegui zen garai hartan jabea.

Hernanin, beste herri askotan bezala, otea herri-lurretan mozten zen. Eta Sevastián de Zavalegui bere barrutiko, Artigako herri-lurretan mozteko zegoen. Otea moztu eta idiekin etxera eramane zuen; baina debekatua zegoen lekuan ebaki ostean, eta udalaren baimenik gabe. Horrek auzia sortu zuen eta Valladolideko kantzelaritzaraino ere iritsi zen.

Hernaniko Udalak helegitea jarri zion, eta Zavaleguik lekukoak eramane zituen, Artigako lurretan simaurra egin edo aberreei jaten emateko –ez karobietarako– betidanik otea baimenik gabe moztu izan zela defendatuko zutenak. Eta udalaren kontra egin zuen, Urumeako zilegimendietako basoetan zegoen egur guztia burdinolentzako ikatzerako erabiltzen zenez, otea mozteko debekatzea behartsuen kontrako neurria zela esanez.

Udalak gogor erantzun zion Zavalegui: herritarren ordezkarien arteko bilera batean hartu zela Artigan oterik ez mozteko neurria, eta horren jakitun zela. Gainera, berak mozturiko oteagatik



herri-lurra oterik gabe utzi zuela behartsuenen kalterako. Araudia betetzen ez zuenak ordaindu egin behar zuen: pertsona batek igitaiekin egunean moztu dezakeen ote kopuru bakoitzeko 2.000 marabedi.

Ote guztiek ez dute balio bera: otebeltza, otezuria... eta otaberria

1735ean, Hernaniko Udalak dekretua atera zuen herrian otea mozteko debekua jarritz; aberreei jaten emateko edo sukalderako soilik hartzea baimentzen zuen, beti ere neurrian moztuta. Itxuraz, Lasarten (arteana Hernaniko lurretan zen), aberentzako otebeltza (*Ulex gallii*) mozteko aitzakian, azken urteetan otazuria (*Ulex europaeus*) moztu zuten simaurra egiteko, karobietarako eta arragoetarako, mendia oterik gabe utziz.



Otebeltza, (*Ulex gallii*).

Hurrengo urtean, herritar batek baimena eskatu zuen otea moztu eta horrekin simaurra egiteko. Udalak, aurreko urtean jarritako debekua behartsuen kalterako zela jakinik, eta herritarrek oraindik ere ebakitzeko eskaerak egiten ari zirela ikusita, otea mozteko baimena eman zuen; baina soilik beltza, ez ote-zuria, ezta otaberria ere (urteko otea), samurra zenez ganaduari jaten emateko erabiltzen zena. Otebeltza mozteko arau batzuk jarraitu behar ziren, gainera: moztu aurretik udalari mozketa lekua eta ote kantitatea zehaztu behar zitzaizkion lizentzia eskuratzeko. Mozketa landazainaren ikuskaritzapean egingo zen, eta bere jorнала eskatzaileak ordaindu beharko zuen.



OTE JOTZEA

Oiartzungo Ergoien auzoko Sarobe Berri baserrian ote jotzen, 1999an. Jotzaileak: Sarobe Berriko Pako Iriarte, Simoneko Felipe Artola eta Iriberriko Lino Zapiain. Argazkia: Juan Mari Beltran.

Neguaeren bukaera aldean, etxe askotan animalien bazka bukatzen ari zela eta, loratu berria zegoen inguruko otea biltzen zen eta arantzez betetako landare hau ondo txikituta, hutsik edo arbiekin nahasturik, goseak zegoen aziendari ematen zitzaion.

Juan Mari Beltran musikariaren hitzetan, "ote jotzea dugu lana, jokoa eta musika uztarturik agertzen diren adibide garbienetakoa. Otea jotzerakoan, emandako kolpe horiek jokoa eginez jotzen dira eta kolpe joko horretatik sortutako hots esaldi horietan musika agertzen da".

Otea mozteko araudia pulpilotik

XVIII. mendearen erdialdera araudia aldatzen joan zen: 1745-60 artean, landarea mozteko lau hilabeteko epea jarri zuten, azaroa eta otsaila artean, eta lau pertsonak moztu zezaketena baino ezin zitekeen ebaki, beti ere lekua eta ote kantitatea zehaztuz. Otea moztu ostean hogeie eguneko epea zegoen jasotzeko. Sukaldeetarako egur eskasia zela eta, karobietarako otea mozteko debekatua zegoen. Araua irmoa zen. Betetzen ez zuenak isuna jasotzeko arriskua zuen. Eta hori jakinarazteko leku aproposena herritar gehienak elkartzen ziren gunea zen: eliza. 1760ko abenduaren 7an, Lasarteko igandeko mezan, bika-rioak udalak harturiko erabakia irakurri zuen, eta ordainsaria jaso zuen horren truke.

Otearen ustiaketa ez zen ahuntzaren gauerdiko eztula. Izan zuen garrantziaren erakusle da, baita ere, 1790ean txilarra mozteko eskaera egin zuen herritarri baimena eman zitzaioela, baina horretarako aitzurra erabiltzera behartu zutela, inguruan zegoen oteari kalterik egin ez ziezaion. Mozketa irailaren 12tik aurrera egitera derrigortu zuten, inguruan zegoen iratzeari ere kalterik egin ez ziezaion.

Tentsioa herrien artean

XIX. mendean bizilagun asko izan ziren otea mozteko eskaera idatziz egin zutenak, batez ere 1840tik aurrera. Eskaera gehienak neguan mozteko ziren, landareak lorea bota aurretik, eta ia kasu guztietan karobietan erabiltzeko ziren.

Nicolas Arbelaiz hernaniarrak, esaterako, hamar gurdi zakar (otea, iratzeta, sasia nahastua...) mozteko baimena eskatu zuen. Horiekin 50 gurdi kare egin nahi zituela zioen, izan ere, aurreko sei urteetan uzta asko urritu zitzaion eta bere lurrek kare premia handia zutela zioen. Horrelako eskaerak asko ziren, 20-30-40 gurdi ote ebakitzeko baimenaren truke, "ohitura zen bezala, zegokiona" ordaintzeko prest zirenak. Karobietarako ez ezik, izan zen teilatua eta adreilu fabrika ireki berriarentzako erregaia falta eta otea mozteko eskaera egin zuenik.

Arauk jartzeak, ordea, azpikeria ere ekarri zuen atzetik, eta liskarrak ez ziren bukatu. XIX. mendearen erdialdera, Astigarragako alkateak Hernanikoari eskutitz ofiziala idatzi zion. Bertan adierazi zion Astigarragarekin muga egiten zuten baserriak hernaniarrak behin baino gehiagotan otea lapurtzen harripatu izan zituztela euren herriko lurretan; eta hori saihesteko, Hernaniko alkateari neurriak hartzeko eskatzen zion, gainontzean, eurek gogortasun handia goz jokatuko zutela esanez.

XIX. mendearen amaieran otea mozteko eskaerak behera egin zuen, eta egun bizirik diren testigu zaharrenek ebakitzen zela gogoan duten arren, ez dute horren kontura izandako arau edo liskar berezirik gogoratzen XX. mendean. Otearen beharrak behera egin ahala, horri loturiko ika-mikek ere bide bera hartu zuten, eta landare arantzadunari loturiko ustiapenak eta erabilerak bere lekua galdu zuen, pixkanaka euskal gizartearen memorian zimeltzen bukatu arte. ■

Eneko Fernandez [Elite mailako txirrindularia]



Eñaut Agirrebengoa Apaolaza
@eagirrebeng

“Federazio batek zer eskubiderekin esaten dio kirolari bati ezin duela kirolik egin?”

Eneko Fernandez naiz, 41 urteko donostiarra, eta ziklismoa dut pasio. Elite mailako lizentzia dut, baina Euskadiko Txirrindularitza Federazioak ez dit lehiatzen uzten. Proba bakarra dago Elite mailan, Euskaldun Txapelketa, eta federazioak bertan lehiatzea galarazten digu 26 urtetik gora ditugunoi. Alegia, baztertu egiten ditu txirrindularitza benetako afizioagatik praktikatzen duten hainbat ziklista.



Batzuentzat, afizionatu mailak soilik balio du profesionalak ekoizteko. Hori al da kirola? Ni irakaslea naiz EHUko Hezkuntza eta Kirol fakultatean, eta beste modu batera ulertzen dut kirola. Bereizkeria dago euskal txirrindularitzan, eta diru publikoz ordaintzen da. Eusko Jaurlaritzak urtean 130.000 euro ematen dizkio federazioari.

Duela zortzi urtera arte ez zegoen adin mugarik. Orain hamabost bat urte bazegoen, baina jende gehiegi zegoelako: sei lasterketatan 300 baino gehiago irteten ginen. 2006an hori kentzea proposatu zen, jada jende gutxiago zebilelako, eta ez zen arazorik egon. Ordea, 40 urteko bi txirrindulari agertu, eta lasterketak irabazten hasi ziren. Dopatuta zebiltzan susmoa zabaldu zen. Hori Euskadiko Federazioari ez zitzaion gustatu, eta arazoak saihesteko adin muga ezarri zuen berriro.

Nik eskua altxa nuen orduan. Eta dopatzen ez ginenokin, zer? Bada, federaziokoek erantzun zidaten ni jada ibilia nintzela behar bezainbeste. Ez zidaten esan masterretan korritzeko; baizik eta, zuzenean, kirola utzi behar nuela. Fe-

derazio batek zer eskubiderekin esaten dio kirolari bati ezin duela kirolik egin?

Ustea zegoen tropelean mertzenarioak zebiltzala, diru-sarien bila eta dopatuta, eta horri konponbidea eman behar zitzaion. Ados nengoen horrekin. Honako proposamena egin nuen nik: nahi zuen guztiak parte har zezala, eta 25 urtetik gorakoentzat saririk ez zedila egon. Hala, diru hori dopinaren kontrako kontroletara bidera zitekeen. Kontrolak ez dituzte inoiz egiten. Bada, ezezkia jaso dut behin eta berriz. Federazioak ez du benetako argudioekin erantzuteko adorerik.

Emakumezkoetan ez dago adin mugarik. Nesken Euskaldun Txapelketan parte hartu izan du 50 urteko jendeak. Eta zer gertatu da? Ezer ere ez. Bakoitzak berea egin du, ondo pasatu du, eta kito. Zentzugabea eta legez kontrakoa da gizonetzko horrela ibili behar izatea. Izan ere, adin mugak urratu egiten du Euskadiko Kirol Federazioen 16/2006 dekretuaren 41. artikulua. Horren arabera, “lehiaketek irekiak izan beharko dute lizentzia duten pertsona fisiko eta juridiko guztientzat, inolako bereizketarik onartu gabe”.

Salaketa jarri nuen bere garaian, baina auzitegiek ebatzi zuten Euskadiko Federazioa erakunde pribatua dela, eta beraz, eskubidea duela nahi duena egiteko. Eta datorren urtean badio, demagun, judutarrek ezin dutela parte hartu? Bereizketa egiteko pribatua da, baina publikoa diru publikoa jasotzeko. Lasterketetara protesta egitera ere joan nintzen. Horren ostean, federazioaren mehatxuak jaso nituen, eta espedientea ireki zidan gezurretan oinarrituta.

Iaz sinadura bilketa egin nuen txirrindularien artean. 152 sinadura lortu nituen; lasterketetan 150 ziklista ateratzen dira batez beste. Sinadura horiekin federazioa joan nintzen, baina presidenteak ez zien baliorik eman. Hurrena, taldeen artean egingo dut bilketa. Adin mugaren alde daude talde batzuk, indar eta diru gehien dutenak, hain zuzen. Baina kontra daude talde gehienak.

Amorru handia ematen dit egoerak. Bila daiteke irtenbideren bat, baina federazioak entzungor egin dio eskaera orori. Nik kirola egin nahi dut, ez didate uzten, eta hemen mundu guztiak eskuak garbitzen ditu. ■

SUFRAGIO INTERESATUA



Nagore Irazustabarrena
Uranga

@irazustabarrena

New Jersey (AEB), 1776. Historian lehenengo emakumeen sufragioa lege onartu zen “nahi gabe”. Estatuko konstituzioa idaztean egindako akats bat izan omen zen lege aurrerakoiaren arrazoa; “gizon” guztiek bozkatzeko eskubidea zutela jaso ordez, eskubide hura “pertsona” guztiena zela idatzi omen zuten. Akatsaz (berandu) jabetuta, legea ez zuten bertan behera utzi 1807 arte.

Pasadizo bitxia interneteko hainbat gutnetan dago jasoa, gehienetan hitz berdintsuekin eta gehiago sakondu gabe. Baina beste iturri batzuetara joaz, esaterako, Jan Ellen Lewis historialariak 2011n argitaratutako *Rethinking women's suffrage in New Jersey, 1776-1807* artikulura, edo legearen jatorrizko testura bertara, ikusiko dugu egia dela 1776an New Jerseyko emakumeek bozkatzeko eskubidea lortu zutela, eta 1807an galdu, baina ez zen akatsik egon.

New Jerseyko konstituzioaren pasarte horrek dio: “*That all inhabitants of the Colony (...) shall be entitled to vote*”. Hau da, “biztanle” guztiek zutela bozkatzeko aukera; “pertsonak” aipatu ez arren, testua anbigua da generoari dagokionez. Baina 20 urte geroago, 1796an, bozkatzeko prozesua zehazteko dekretu bat onartu zuten: “*That every voter shall openly, and in full view deliver his or her ballot*”. “His” eta “her”, izenorde posesi-



AEB-ETAKO KONGRESUKO LIBURUTEGIA

bo maskulinoa eta femeninoa, biak jaso zituzten dekretuan, 20 urte lehenago idatzitakoan nahi gabe egindako akatsik ez zegoela garbi erakutsiz. Bestela ere, ez da oso sinesgarria 1776an egindako akatsaz 31 urte geroago jabetzea, eta orduan zuzentzea.


Horregatik, egun, historialari gehienek uste dute hizkuntza anbiguo hori jakinaren gainean eta propio erabili zutela. Eta nabarmentzen dute bozkatzeko beste baldintzak biltzerakoan ez zirela batere anbiguoak izan. Testuaren arabera, boto-emaleek adinez nagusi izan behar zuten, konderri berean gutxienez 12 hilabetez bizi behar zuten eta beren izenean gutxienez 500 librako ondasunak izan behar zituzten.

Gutxienezko ondasun horiek izateko se-narraren edo aitaren baimena zuten emakumeek soilik eman zezaketen botoa –eta

Estatubatuar sufragistak 1910eko hamarkadaren hasieran. Munduko herrialde gutxi batzuetan emakumeen boto eskubidea onartu berri zen, emakume estatubatuarrek 1920an lortuko zuten eskubide hori (emakume zuriek, gainerakoek 1965 arte itxaroan behar izan baitzuten. Baina New Jersey ia mende eta erdi lehenago eman zieten aukera hori.

ezkongabe edo alargun aberats gutxi batzuek. Menpeko izaten jarraitzen zuten. Baina probetxugarriagoa da bozkatzeko aukera –zuk nahi duzunari bozkatzeko aduen menpekoa, hauteskundeetan erabili ezin duzun menpekoa baino.

New Yorken eta Massachusettsen ere antzeko hauteskunde legeak ezarri, baina bizpahiru urtetan atzera bota zituzten. New Jersey gizon aberatsek zuku gehiago atera zioten emakumeen bidez berriro bozkatzeko eskubideari. ■



MAHMUT KARATOPRAK

Zeliakoak, “hesteetako gaitza dutenak”

Azken mende laurdenean zeliakoen kopurua bost aldiz biderkatu da. Neurri batean, kontsumo ohiturak aldatu direlako, baina, batez ere, orain askoz gehiago diagnostikatzen delako. Gaixotasuna ez da berria; Areteo Kapadoziakoak (irudian) K.o. I. mendean idatzitako medikuntzako tratatu zabalean atal osoa eskaini zion “afekzio zeliakoari”. Izena ere Areteok berak jarri zion:

koiliakos edo “hesteetako gaitza dutenak” deitu zien gaixoei. Greziar medikuaren esanetan, zeliakoek “ez dituzte elikagaiak atxikitzen” eta horren arrazoa “bero natural eskasia” zen. Garai hartan uste zuten urdail barruko “bero natural” hori ezinbestekoa zela elikagaiak xurgatzeko. Hogeita bi mende geroago, badakigu zeliakoek glutenari intolerantzia iraunkorra diotela. ■



Biodinamika oinarri duen nekazaritzan ekoitzitako ardoek bereganatzen dituzte gero eta sari gehiago. Ilargia zein konstelazioen aurrean dabilen, ez omen du eragin bera sortzen.

Ardoa ilargitan



Jakoba Errekondo

jakoba@bizibaratzea.eus

Nekazaritza ekologikoa puri-purian den honetan, biodinamika oinarri duen nekazaritzan ekoitzitako ardoek bereganatzen dituzte gero eta sari gehiago. Ikuskizun da mahats ardoetan bezala ote datorren sagardo, udareardo, garagardo eta abarretan.

Ardogintzan asko ikertzen ari da lurra aberastea eta zeruaren eragin integrala oinarri dituen nekazaritza hau. Ardoak ematen du, eta, zenbat eta naturalago, eta gehiago emango du: osasuna bezala txanpona. Frantzia da ikerketa mota horren lurralde aitzindaria. Diru asko mugitzen da han mahastietan eta boti-

letan... Azken beltzean, unibertso handiaren barruan dagoen mikrokosmoa den planetan dagoen mikroagoa den kosmosa da mahastia. Bizitzaren zikloa ulertu eta gai organiko eta naturalak soilik erabiltzen dira.

Ilargia zein konstelazioen aurrean dabilen, ez omen du eragin bera sortzen. Lau multzotan banatzen dira egun horiek: sustrai, hosto, lore eta fruitu egunak.

Ilargia lurraren elementua ordezkatzuten duten konstelazioen parean denean (Taurus, Birjina eta Caprikornius), sustrai egunak dira. Landareak sustraiak abantailatzen ditu, eta ardoan ñabardura tanikoak eta ezaugarri mineralak indartuko dira.

Ilargia uraren elementua ordezkatzuten duten konstelazioen parean (Karrama-

rrua, Eskorpio eta Arrainak) denean hosto egunak dira. Hostoak abantailatzen ditu landareak. Ardoan landare lurrunak indartzen dira; ardo zuri batzuetan bereziki interesgarria.

Ilargia airearen elementua ordezkatzuten duten konstelazioen parean denean (Bikiak, Libra eta Aquarius), lore egunak dira. Landarean loreak sustatzen dira; ardoan ere loreen ñabardurak aitzinatzen dira.

Ilargia suaren elementua ordezkatzuten duten konstelazioen parean denean (Aharria, Sagitarius eta Lehoia), fruitu egunak dira. Fruitua bizkortuko da batik bat landarean. Ardotan ere fruituei areago igarriko zaie, baita lur sail bakoitzaren ezaugarri bereiztaileri ere. ■

Baserritarrek ekoizten dute munduko elikagaien %70, baliabideen %25arekin



Garazi Zabaleta
@tirikitran

“Munduan geroz eta biztanle gehiago garenez, elikagaiak ekoiztuko dituen nekazaritza industria handiaren beharra ezin da ukatu”. Agroindustriako enpresen eta eredu transgenikoaren bultzatzaileen argudio nagusietakoa da aurreko hori, euren ereduaren baliagarritasuna justifikatzeko darabiltena. ETC Group gobernuz kanpoko erakundeak egin duen ikerketak, ordea, mito horiek eraitsi eta elikadura buru-jabetzari lotutako elkarteek aspalditik aldarrikatu dituzten errealitateak atera ditu argitara.

Baserritar txikiak mundua elikatzen

Nekazari txikiek, indigenek eta familiako langariek ekoizten dute munduko herritarrok jaten dugunaren %70, ikerketaren arabera. Esanguratsua da, gainera, lurreko baliabide naturalen –ura, lurra eta erregaia– %25 soilik darabilela nekazaritza eredu horrek. Beste aldean legoke nekazaritza industria kate erraldoia: munduko baliabideen %75 erabilita ere, herritarren %30 soilik elikatzen du.

Gobernuek gosea amaitu eta aldaketa klimatikoa geldiarazi nahi badute, ez dute baserriko nekazaritza bultzatzeko politika publikoak martxan jartzea eta bultzatzea besterik, ETC Groupen arabera. *Nork elikatuko gaitu? Baserritarren elikagaien sareak edo nekazaritza*



Urtero 75.000 milioi tona lur goldagarri suntsitzen ditu nekazaritza industriak, basoen 7,5 milioi hektarea eraisten eta nekazaritzan erabiltzen diren erregai fosilen %90 kontsumitzen. Baserritar txikien ereduak, berriz, nekazaritzarako erabiltzen den uraren %20 darabil, erregaien %10, eta ez du lurren eta basoen suntsiketarik eragiten. Bi ereduaren talka argia da ingurumenari begira ere.

industriaren kateak? izeneko ikerketaren ondorioetan nabarmendu dutenez, munduko gosearen arrazoia ez da elikagai falta, elikagai horien banaketa bidegabea baizik.

Bitartean, agroindustriako enpresa handiak baliabide naturalak xahutzen

Ikerketako txostenaren arabera, urtero 75.000 milioi tona lur goldagarri suntsitzen ditu nekazaritza industriak, eta basoen 7,5 milioi hektarea eraisten. Horrez gain, nekazaritzan erabiltzen diren erregai fosilen %90 kontsumitzen dituzte enpresa handi horiek. Baserritar txikien ereduak, berriz, nekazaritzarako erabiltzen den uraren %20 soilik darabil, erregaien %10, eta ez du lurren eta basoen suntsiketarik eragiten. Bi ereduaren talka argia da ingurumenari begira ere.

Kate agroindustrial handiek urtero sortzen dituzten 4.000 milioi tona elikagaietatik %33 eta %50 artean galdu egiten dela ere (prozesatzeko, garraiatzeko edo biltegitratzeko garaian) ondorioztatu du ikerketak. Ikerketaren egileek azpimarratu dute politika egoiekin nekazaritza eredu agroekologikoak landa eremuetan enplegua hirukoiztu, hirietarako migrazioa gutxitu, elikagaien kalitatea hobetu eta gosea ezabatu lezakeela. ■

www.bizibaratzea.eus

EUSKAL HERRIKO AGENDA

Martxoak 8: Gernika

Goru erakustaldia. 18:00etan Euskal Herria Museoa. Meritxel Pino adituak erakutsiko du nola erabiltzen den eta azalduko du emakume gorulariek historian izan zuten garrantzia.

Martxoak 10: Baiona

Euskararen sagartzea landatzea eta lizeo berriaren aurkezpen jaia. 10:00etan hasita, Etxepare Lizeoan.

Martxoak 10: Arrasate

Emakume artisauek eta baserritarren azoka. 10:00etan hasita, Sebero Altube plazan.

Bizi Baratzea buletina jasotzeko, eman izena

Zure e-postan jasoko dituzu azken artikulak, galdera-erantzunak, agendako ekintzak, hitzak, esarak, argazkiak... Euskal Herri osoko edukiak biltzen dituen landareei buruzko buletin bakarra jasotzeko, bidali zure e-posta helbidea hona: bizibaratzea@bizibaratzea.eus

azoka

Gure Errepublikan eman eta hartuz, denok ongi bizi gaitezen elkar zaintzen dugu. Sartu Azokan eta ikusi ARGIA Jendeak komunitateari musutruk eman dizkion gaiak. Oraindik ez bazara ARGIAkoa, oraintxu duzu egiteko aukera.

Dagoeneko erabiltzen ez dituzun gauzak, edo norberak etxean, lanean, militantzian egindakoak ARGIA Jendeari emateko aukera dugu. ARGIAko komunitatearen arteko harremanak bultzatuko ditugu horrela. Indartu dezagun indartzen gaituena! Twitterrez jarraitzeko: @argiaAzoka

www.argia.eus/azoka

BIXENTE AMEZTOYREN LAMINAK

Bixente Ameztok 1968an Zeruko Argia al-dizkarian egindako azalak, lamina bihurtuta. Artistaren logotipoaz apaindutako karpeta batean datoz jasota, Joseba Sarrionandiak idatzitako sarrerarekin. 2013an, artista hil zeneko 10. urteurrenean argitaratu zituzten lamina hauek ARGIAk eta Koldo Mitxelena Kulturuneak elkarlanean.

Ezaugarriak:

- 36 lamina.
- Neurriak: 21cm X 28cm.

Bidalketa gastuak: ARGIAren egoitzatik pasa bila, edo bidalketa gastua 5 euro inguru aterako zaizu.



ARGIA Jendearentzat musutruk

61 salgai ditugu ARGIAren Azokan:
argitalpenak, mahai-jolasak, jantziak, ikus-entzunezkoak eta bestelakoak.
ARGIA Jendeak musutruk hartu ditzakegun 19 gai ere badira!

ARGIA Jendeok musutruk eskuratu ditzakegun beste gai batzuk:



ARGIAren ipuin sorta

Bost liburuxketan, idazle hauen ipuinak: Xabier Mendiguren, Eider Rodriguez, Iban Zaldia, Itxaro Borda eta Irati Jimenez.

ARGIA Jendearentzat musutruk



Bidea urratu duten bertsoak

23 bertso sortako bilduma honek emakumeek bertsoan egindako ibilbidea kontatzen du, bertsoaldi bakoitzaren testuingurua labur azalduz.

ARGIA Jendearentzat musutruk



I am Pellot komikia

Asisko Urmenetak egin eta ARGIAk 1996an kaleratutako komiki liburuxka, Pellot kortsario hendaia protagonista duena.

ARGIA Jendearentzat musutruk

M8AN EMAKUMEOK PLANTO

ARGIAko emakume langileok ere grebara

ARGIA n 24 langile gara, hamaika emakumezko eta hamahiru gizonezko. Martxoaren 8an, ARGIAko egoitzan, gizonezko langileok baino ez gara arituko lanean. Hala erabaki du langile batzarra. Egun horretan



Otsailaren 27an egin genuen langileon asanblada, M8an zer egin erabakitzeko.

emakumezko kazetariak (bi kazetari egun osoz eta beste bi praktikan) greba aktiboa egingo dugu, hain justu, grebari oihartzuna emanez eta Euskal Herriko mugimendu feministak antolatutako ekintza eta manifestazioetan hartuko dugu parte. Gizonezko kazetariak (bederatzi) argia.eus-en greba feministaz informatuko dugu.

Erredakzioan askogatik gizonezkoak badira nagusi, administrazioan eta salmenta sailean aurkakoa gertatzen da. Bi sailak batera hartuta (hamar langile) bakarra da gizonezkoa. Emakumeok greba egingo dugunez eta ARGIAra deitzen duzunean egunero telefonoa hartzen duen langilea emakumea denez, martxoaren 8an gizonezkoek egingo dizuegu harrera.

M8ri buruzko langile batzarra baliatu dugu denon artean hausnartzeko gizon eta emakumeen arteko desoreke, zaintza lanez eta etxetik kanpoko ordainpeko lanez. Mahai gaineen jarri da, adibidez, kazetari gehienak gizonezkoak izatea, saltzaile gehienak emakumezkoak, eta administrazioa langile guztiak emakumezkoak. Bestalde, grebarekin bat egitea aho batez onartu da, emakume langile guztiok adierazi dugu greba egingo dugula, baina greba egitea errazen ARGIA n dugula ere esan da. Izan ere, greba lantokian, ikastokian, kontsumoan eta zaintzan egitea eskatu

du mugimendu feministak. Batzarrean emakume askok adierazi dugu zaintza alorrean planto egitea askoz zailagoa egingo zaigula. Eta hari horri tiraka beste mutur bat atera da. ARGIAk parekidesuna babesten du eta bultzatzen du, ARGIAk bizitzea merezi duten bizitzak eraiki nahi ditu, eta beste makina bat enpresatan baino malgutasun handiagoz egiten dugu kale lantokian ARGIAko langile garen gizon zein emakumeok, haurrak, gaixok, zaharrak zaintzeko, etxeko martxari eusteko..., hain ahaztua dugun bizitza horri heltzeko. Zer gertatzen da ordea, ARGIAk horrela jokatzeko badu eta inguruko enpresek (ARGIAko lankideon bikotekide, senide eta lagunen enpresetan adibidez) ezikusiarrena egiten badute? Zama ez da zabaltzen. Horregatik, ARGIA n lana bizitzaren parte izan dadin etengabe lantzen jarraitzeaz gain, gainerako lantokiak interpelatu nahi ditugu, haiena ere baden ardura bere egin dezaten.

Esandakoa, emakumeok planto egingo dugu. Gizonok lan egingo dugu ARGIA n, edo zaintza lanak beteko ditugu, edo biak batera, edo... Horretarako baita martxoaren 8ko greba, patriarkatuaren zimenduak astintzeko, edo sikiera egun horretan azkura egiteko. ■

Sarean arrantzatua

[Ondoko ARGIAko emakume langileok ere grebara artikulua, interneten publiko egin genuenean]

Naroa E. Gorrotategi

@naroaelortza

ARGIAk beste perla bat gaurkoan. Bikain artikulua, bikain hausnarketa, bikain lanketa. Milesker!

“Zuloan” liburua Eusko Legebiltzarrean



Otsailaren 27an Eusko Legebiltzarrean egin zuen agerraldian, ELA sindikatuak eraikuntza arloko “inpunitate zirkulua-ekin” bukatzea eskatu zuen. *Zuloan* liburuaren emaitzak azaldu zituzten, eta ikerketa horrekin azaleratutako AHTko lan-esplotazio kasu zehatzen berri eman zieten legebiltzarkideei eta liburu bana banatu ere bai.

AGENDA

Zuloan liburuaren aurkezpen hitzaldiak. ARGIAko Urko Apaolaza AHTko obretako lan baldintzez mintzatuko da.

- Martxoaren 13an, Gasteizen. 19:00etan Oihaneder Euskararen Etxean. Ustelkeriaren aurkako Adil elkarteak antolatuta.
- Martxoaren 23an, Urretxun. 18:30ean Urretxu-Zumarragako Gaztetxean.
- Apirilaren 12an, Donostian. 17:30ean ELAren Amara Berriko egoitzan. Igor San Josek Anoetako obrez ere hitz egingo du.



Eta klaska pilota!



Itxaro Borda

IRUDIA: AINARA AZPIAZU "AXPI"

Baionako Euskal Erakustokian daude 1853. urtean Aldudeko Etxegarai apezak kaier txiki batean eskuz kopiau sei bertso-sail. Horieta bada interesatzen zaigun bat: Baztango Lamiarrietan XVII. mende bukaeran edo XVIII.aren hasieran egin zen espainolen eta frantsesen arteko pilota partida bat harilkatzen du xeheki. Espainolak alabaina baztandarrak ziren, eta frantsesak trenpu eta fama gaitzeko aldudarrak. Jakina da bi eskualdeak kontrabando eta artzaintza harremanez gain, kirolak, pilotak presesi, hurbiltzen zituela.

Hemeretzi koplako abestian lehia nola garatu zen kontatzen du bertsolariak, zuzen bezain soilki, hizkuntza arruntan. Orduan ere giroa bazen kantxetan, dirua jokatzeko eta irabazlea ohoratzen zuten:

*Zer dut bada aditzen
Baztango aldetik?
Mendiak inarosten
Iduriz erroitik?
Bada oihu, bada kantu
Bada irrintzina:
Aire guzia dugu
Bertze bat egina.*

*Zer bada hortan zare
Zu oraino Pettan?
Ez dakizu deus ere
Misterio hortan?
Laur aldudiar tieso
Español bat hetan
Jokatu dire bapo
Gaur Lamiarrietan!*

Laxoan ari ziren aldudarrak. Desafioak oro eramaten zituzten airez aire Elizondon, Iruritan, Arraiozen, Alduden bertan eta ArizkUNETIK Bozatera

Egiteko berezirik ez daukagunean larunbat eta igande arrats apalak ETB Kantxa emankizunari lotuak pasatzen ditugu. Aimar Olaizolaren abilezia umila, Altunaren jukutria fina, Urrutikoetxearen egonarri hotza edo Ezkurdiaren irabazle temati joera ikustean bihotzak punpaz dabilzkigu. Pantailan ikusi ala egiazki plaza edo trinket batean jolastu, pilota plazer hutsa da eta horrela izan da menderen mendeetan.

doan bide bazterreko Lamiarrietako pentzean. Gaurko egunean bertan dago Mikel Laboaren ohorezko graffitia, izar gorri batez hornitua.

Aldudarretan ospetsuena Perkain izengoitiarekin ezaguturiko Juan Martin Inda zen, txapeldun handia, frantses iraultza denboran Hegoaldera ihesi joan zena eta Aldudera itzuli zenean, Konbentzioaren garaian, sei mila ikusleren aitzinean jokatu zuena, Azantza bere ohiko arerioaren kontra. Baztandarrak ez ziren gutxiago:

*Baztandarra betitik
Da gizon segura,
Aldi huntan hargatik
Bazen duda-muda,
Ez zelakoz partida
Txit haren gustura
Horregatik ez dauka
Jokatzeko gura.*

*Orduan Dolhagaray
Balleko alkalde
Ohore ona garrai
Agertzen fagore:
Joka beitez mutilak
Menturaz debalde
Nahiz neronek untzak
Bota zuen alde!*

Ontzaz, orduko diru-neurgailua, ordaindu parioak aldudarren alde metatzen ziren eta baztandarrek zalantzak zeuzkaten larrera jaisteko. Baina lortu zuten eta irabazten hasi ziren baztandarrak, ikuslegoa zoratur.

*Españolek bost joko
Frantsesek baterez!
Ja zioten goraxko
Eginen ere ez!*

*Orduan sabel minak
Baziren arabez
Bai, ondiko "saminak"
Nork erranen du ez!*

Dagoeneko Baztanen eta Malerrekan baizik jokatzeko ez den laxoa pilota modalitatea misterioa da guztiontzat: Baigorri, Donapaleun edo Uztaritzen eskaintzen diren errebote eta pasaka moduen arteko nahasketa gisa ulertzen ahal genuke. Xirritza ziurtatzen duen larruzko eskukoekin ari dira talde baikoitzeko botaria, numeroa eta bi laurdenak, gehienetan 9 jokotan, puntuak tenisean bezala zenbatuz.

Perkainez beste izar batzuk ere baziren denbora haietan, hala nola Azantza, Perkainekin pataskatzen zena kantxetan, eta gure kantan bat-batean aldudarren salbatzaile antzera multzotik jalgi zen Celhay famatua:

*Baina Celhay zaharra
Behar da jokatu!
Jendearen sukarra
Oihuz abiatu:
Estebe paretatik
Zu beti airera,
Ez utzi oraikotik
Jokorik sartzera!*

*Bada, erran bezala,
Doa eskasera
Handik ikus ahala
Pilota pasara!
Ja, horra, botaria
Doa bazterrera
Ez jakinez garria
Nora sakatzera!*

Eta aldudarrek irabazi zuten Celhayen eskarmentu eta trebeziari esker. Adin

bateko gizon apala zen, galtzean bezain garraitian (garaipenaren orduan):

...
Lagunek zuten
Celhay erakutsi
Harturik sorbaldetan
Zelakoz nagusi.

Baina horrelakorik
Ez nahiz onetsi
Laster doa artetik
Ohorez ihesi:
Gizonari zoin den eder
Beti garraitia
Ongi doa halaber
Zinez modestia!

Perkainen ondorengotzat jotzen zuten Celhay, *Eskualduna* astekarian agian lehenago kantatu eta 1908an plazaratu ziren Jose Vicente Etxegaraien koplak lekuko:

Lehen aldiko dena
Landare gazte bat
Agertzen da zalhoina
Celhay deitzen den bat,
Luze eta lerdena
Onesta orobat
Menturaz daitakena
Don Perkain berri bat.

Lamiarrietako partidari pilotari ausera eta fin gisa azaltzen den Antton ere aipatzen da bertso hauetan:

Ezagutuak dire
Antton bai Ifolé
Jaun hek beti pilota
On edo tzar dute!

Eta 1853ko gure dokumentuan ikusten dugu Antton, Lamiarrietakoaren ondorengotik, Elizondoko izar bilakatzen eta ontzaz kargaturik gero frontera zeharkatzen:

Biharamun goizean
Horra Elizondoko
Behar dela laxoan
Jokarazi Antton:
Anitz nekatu gabe
Irabazi zion
Bizpahiru untza pare
Dena ere da on!

Aldudera heltzean, bezperako irabazleak goratu zituen jendeak. Egiazko besta egin zieten. Bandera zuri-gorriak,

zaldizko ibilaldiak herrian barna, trago bat hemen, txaloak han, ohorea zen baztandarrei irabaztea, elizatik ezagutzen zuten antzinako erromatarrek antolatzen zituzten triunfoen parekoa:

Batenek krabistutik
Bertzek estibera
Hor deramate pozik,
Berak du bandera!
Guda baten ondoan
Iduri duela
Erromako hirian
Sartzen jenerala!

Perkain, Azantza, Kurutxet, Larralde, Otarre, Xilhar, Leonis eta Txikito plaza gizonak ziren. Jakina. Hargatik aldudarrak ez ziren beti irabazle ateratzen. Bakarretan egiazko *hooligan* mendekari ibiltzen ziren mugaren alde batetik bestera. Galtzaile txarrak zirela agertzen du istorio batek.

Aldudekoak behin joan ziren Gorostapalora, Erratzuko errebotea han zelako, eta lekuan bertan saiatzen ari zirenean, sobera azkarrek zirela ohartzean Erratzukoek desafioa bertan behera utzi omen zuten, auzo herrikoen haserre piztuz. Alimaleko kalapita sortu zen eta aldudarrak Iparralderako bidean atzean zituzten iratze edo belar meta guztiak erre edo errekarara bota zituzten, metaziriak barne.

Etxegarai jaunak, gau ilun euritsu batez, Aldudeko bere apez-etxe bakartian, paperean arkatzaz etzan zituen kopletan ez da horrelakorik agitzen. Diruz okituak dira, jan eta edan dute ausarki bidean, partidak egiten dabilta jarraian: arrakasta itzela dute, gaur egungo pilotariak duten bezala funtsean, Hegoaldean bistan dena, Maite Iriarte eta Eneritz Arrieta adibidez, bai eta Iparraldean ere Waltari, Ducassou, Ospital baizik ez lerrokatzeko!

Bertsolaria, lekukoa hots, anitzetan gertatu denez, apeza dela susmatzen ahal dugu, morala isurtzen duelako sail luze horretako hiru azken kopletan:

Orai nere maiteak
Nik hemen banaki
Guziz, zure gazteak
Kontseilatzen finki:
Partida egitean
Ahalaz izerdi
Gero jokatzekoan
Gelditzen da ongi.

Ez beraz engainatu
Bitorios dena
Ez sobera jokatu
Gaur eskutan dena:
Bezpera alegerak
Duke goiz iluna
Jokari berotuak
Maiz du bihotz-mina!

Bertze alde gaurogoitik
Nork bada ez daki
Nehor guti jokotik
Izan dela ongi,
Aldiz tuzte anitzek
Bere bertzenekin
Galdu bai dohakabek
Arimak hertzekin!

Pilota, bertso askoren mamia izan da. Perkainen balentriak abesten dira hainbat lehiaketan kariatara, Luhuson, Alduden, Donapaleun, Tolosan edo Baigorriin. Kopla batzuetan, agertzen zaigu zahartua Harizpe mariskalaren konpainian partidu bati begira. Azken hitza Iruriko Etxahun nekazari koblakari trebeari utziko diogu: pilotaren eta pilotarien aldeko himnoa ondu zuen, Baigorriko Pilotarien Biltzarrean lehenbizikoz kantatzeko:

Zelüko jinko jauna
Gützaz orhit zite
Pilotarien Biltzarrean
Zü jar zite jabe
Gazte horiek ondotik
Har dezaien parte:
Zer lizateke Eskual Herria
Pilotarik gabe?

Gustatzen zaigu “pilota” hitzaren ordez “euskara” ematea eta zintzurra larritzeraino ahairea gorarik eskaintzea, pilota eta euskara sinonimoak bailiran. Ez ote genuen, besta-egunetan, fandan go airok hau biribilkatzen?

Haurrak ikas zazue
heskuaraz mintzatzen
Ongi pilotan eta
oneski dantzatzen

Airetun txikitun airetun laire...

Eta Elizondoko udaletxearen maldako bota-harria amultsuki ferekatzen dugu ondorengotik iragaten garenean. Klaska beza pilotak gure bihotzen frontisetan! ■



3 TALDEEN ARTEKO FINALA

MARTXOAK 17

GASTEIZ **LARUNBATA**

12:00

BERTSO-POTEOA

LANDATXON HASITA

14:30

BAZKARIA

LANDATXON

17:00 3 TALDEEN ARTEKO FINALA

LANDATXO KANTXAN



Babesle nagusiak



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Vital gizarte ekintza



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

ARGIA



artepan

www.bertsozale.eus/araba

Audience

Kubatik ekarritakoaren isla

20 urte betetzera doa Audience talde gernikarra. Estilo ugaritak bidaiatuak, oholtza gainean batetik bestera ibiltzen dira, instrumentuak aldatuz. Esperientzia lagun, beti beste salto bat egitera ausartzen da taldea. Oraingo honetan Kubatik ekarri dute euren zortzigarren lana den *Isia*, Kaki Arkarazoren gidaritzapean ekoiztua Habanan.



Xalba Ramirez

@xalbaram

ARGAZKIA: HIBAI AGORRIA

Duela urte batzuk Andoaingo Garate estudioan Kaki Arkarazok bota zien proposamena gernikarrei: Kuban duela hila bate batzuk Amparanoiarekin aritua zela, eta euskal talde batekin joatekotan Audiencekoak iruditzen zitzaizkiola aproposenak. Taldeak 2016an izandako aldaketen ondoren zerbait berezia egin nahi zuten eta hibernatzen egondako ideia berrartu zuten.

2017ko apirilean Silvio Rodriguezek sortutako Abdala estudioetan grabatu zituzten *Isla* osatzen duten hamaika kantak. Bertako musikariek ukitu berezia eman diote lanari, baina ez dute disko latinoan egin. Audiencen rock librea da nagusi, kubatar zaporeekin.

“Askotan esan dugu ez dugula hara joan nahi turistak bat egitera”, dio Ager Insunzak. Kubako musikari handiekin elkartu, eta nahasketa egin nahi izan dute: batzuk rockera mugitu eta besteak erritmo latinoagoetara, bien arteko nahasketa emanez.

Hiru kantatan nabarmenagoa den arren, Yaroldi Abreuk perkusioak sartu

ditu ia abesti guztietan piezei ukitu berezia emanez. Alejandro Delgado tronpeta joleak vibrato handiko une goxoak eraikitzen ditu *Egun da Bayamon* eta *Egunsentia Habanan* kantetan. Osanay Martinez abeslariak *El tres, el quinto y el tumbao*-ren moldaketa batzuk proposatu zituen, eta lehen hartzean, atera bezala grabatu zuen ahotsa. Soka sekzioarekin lan pixka bat gehiago egin behar izan zuten dena koadratzeko, baina sotil bezain eder diren konponketak daude, batez ere *Nork jakin* kantan. “Beatles-en *Eleanor Rigby* dirudi”, dio Gaizka Insunzak.

Ruben Garaterentzat esperientzia ikaragarria izan da. “Delgado etorri zen, eguzkitako betaurrekoak kendu gabe kabinako sofan etzan eta kantak entzun zituen. Halako batean gelan sartu zen ezer esan gabe, eta bi hartzetan bi kanta grabatu zituen. Kakik berak esaten zuen urtetan ez duela horrelako grabaketarik egin”.

Konfort eremutik ihes egiteko joan ziren Kubara, besteak beste; eta han, sozialismoan hezitako musikariek topo egin zuten, “kultura bizitzeko modu

erabat ezberdina” dutenak. “Zaila da maila horretako musikariak hemen aurkitzea”, azaldu du Ager Insunzak, “sozialismoaren bertute eta miseriez” hitz egiterakoan.

Izan ere, material eskasia ikusi dute. Hemen ohituta daude estudioan hamar amplifikadore eta nahi beste gitarra edukitzera. Han berriz, bi anpli eta bi gitarrarekin konformatu behar zuten, zegoenarekin alegia. Gitarraren sokak aldatzea ere luxua da uhartearen: “*Usted lo que es, es un capitalista*” (“zu kapitalista zara”), esan zion beraiekin aritu zen gitarra-jotzaile batek, sokak puskatu aurretik aldatzeagatik. “Egoera horrek lagundu digu musika beste modu batean garatzen eta soinuaren antzematen da”. Esperientzia musikalaz gain, bitalaz hitz egin dute taldekide guztiek.

Baina prozesuan dena ez da erraza izan. Kubatik itzultzen ari ziren hegazkinean krisi moduko bat izan zutela aitortu du Ager Insunzak: “Ez genekien nola antolatuko genuen materiala, bi disko ateratzekotan izan ginen”. Garateren esa-





netan, “azkenean bidaia bat bezala planteatu genuen diskoa. Audience hasten da, lurra prestatzen edo. Laugarrenean tronpeta agertzen da eta horren ostean hiru kanta latinoenak daude; eta ondoren diskoa berriro rockera doa. Beraz Audience hasten da, Kubara doa, eta berriz itzultzen da. Hori da diskoaren zentzua”.

Gaizka Insunzak oso argi du: “Elkarriketak egiten ditugunean eta diskurtso bat adoptatzen dugunean, koherentzia hartzen du eta publikoak pentsatzen du dena aspalditik pentsatua zegoela. Baina dena prozesuan gertatzen da. Estudioaren bezperan bi kanta berri sartzea erabaki genuen, diskoan klabeak direnak”.

Aurrera begira erritmo latinoetan sakonduko ote duten galdetuta, argi dute: “Marka horretatik ihes egin behar dugu. Esperimentu txiki bat egin dugu, baina ez gara mundu horren parte. Hurrengoan ez dakigu zer egingo dugun, baina *Isla*-k oraindik asko du emateko. Industrian badirudi disko bat atera eta bi hilabetera ahaztu egiten dela, eta beste zer-

bait eskaini behar duzula. Baina 20 urte daramatzagu guk, gauzak beste modu batera egiten, diskoak lehen bezala pentsatu eta grabatzen. Jendeari konpromisoa eskatzen diogu. Agian merkatuaren kontra goaz, baina merezi du”.

Bidehutsen ateratako zazpigarren erreferentzia honekin, zigiluan lan gehien atera dituen taldea dira. Musika ulertzeko ereduak batzen ditu: “Gu bezalako proiektuak –dio Gaizka Insunzak–, merkatuari begira ez daudenak, musikari baizik, sorkuntzari... mugak baino ez ditu. Baina guretzat bizitza frogatzen da. Gainera, nik uste dut gaur egun guk egiten dugun musika egitea dela gizartearekin eduki dezakezun konpromisorik handiena. Egiten dugun moduan egitea dela egin dezakezun gauza iraultzaileena, maite dugun musika egitea 20 urtez eta segi, nahiz eta merkatuak ez kasu egin. Zuk nahi duzuna egin, merkatuari kasurik egin gabe”.

Ingelese abesten duen euskal taldea da Audience. Ion Andoni del Amok, *Party and Borroka* liburuan aipatzen du

ingeleza maskara bat dela eurentzat, distantzia bat euskaraz esango ez luke tena esateko. Gaizka Insunzak berresten du: “Eszenatokira igotzean antzerki bat egiten ari gara, eta niri laguntzen dit paper horretan sartzen. Hala ere, ia oharkabean egindako hautu estetiko bat da. Gure erreferenteengatik bai, baina baita soinuagatik ere”. “Nik ez dut talde euskaldunagorik ezagutzen, euren egunerokoa euskara hutsean egiten baitute”, dio Igor Ertzilla teknikariak.

Euskal musika definitzerako orduan ere, agian, eszenatokiaren atzealdeari begiratu beharko genioke, hor behean gertatzen denari. Nondik, nora eta zertarako abesten den. Eta nork entzuten duen eta zertarako. Audiencek euskal entzuleak konfort eremutik atera eta espazio berriak deskubritzera eramaten ditu. Eta agian euskal kulturarentzat interesgarriagoa da konfort horretatik ateratzen gaituen musika, landua, jaso, arriskatua eta zintzoa, plastikozko musika bat baino, hau euskaraz egin bada ere. ■

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Angelu itsuak



Iratxe Retolaza

Arantxa Iturberen narrazio-bildumek inkomunikazioaz jarduten dutela aipatu izan da maiz: gaizki ulertuak dituztela ardatz, esan gabekoak, isildutakoak. Bada halakorik *Honetara ezker* bilduman. Baina, hartu-emanetan sorturiko erritual zein kodeez dihardute batik bat.

Hogeita bederatzi eszena eta pieza laburrez osaturik dago bilduma, eta batasuna igartzen da tonu, giro, erritmo zein ikuspegiari. Pieza narratibo guztietan egunero elkarren ondoan dagoen jendea irudikatzen zaigu (senideak, lankideak, bikoteak, adinekoak eta zaintzaileak...). Pertsonaien mundu-ikuskera zartatu egiten da narrazio hauetan, hurkoari buruzko irudia lehertzen zaielako: keinu batek mesfidantza sortzen du, hizketaldi batek nortasunaren ertz berri bat ikusgarri egiten du... Hurkoaren gogo zein asmo antzemanekin angelu itsu bilakatzen dira, elkarrengana hurbiltzeko horma, susmoen iturri. Hurkoaren irudia auzitan, eta baita protagonisten irudia ere, hurkoa dutelako nortasuna eraikitzeko ispilu nagusi. Ispilu hautsiaren aurrean, askotariko bideak hartuko dituzte: ispilua berreraikitze ahaleginari eutsi, ispilu berriak bilatzeko asmoari lotu, kristal hautsiek sorturiko zaurietan izoztu...

Haustura horiek kontatzeko ikuspegi jakin bat jorratu da: narratzaile gehienek ahots hotz eta urrun bat gorpuztu dute, afektu eskasekoa. Izan ere, zentzuz eta tentuz jokatu beharrak itsukeriara daramatza pertsonaiak, nor berean tematurik, eta ezinezko zaie bestearen larruan


Honetara ezker

ARANTXA ITURBE

Susa, 2017

Arantxa Iturbe Maiz idazlea
eta irati esataria
(Alegia, Gipuzkoa, 1964).

ARGAZKIA: DANI BLANCO



jartzea. Hoztasun horren bidetik eraiki ditu narraziorik indartsuenak (*Profanazioa, Etxea, Terapia, Atea, Begirada, Apustua*).

Narrazio askotan angelu itsuak sortu ditu, isilune eta elipsi ugari. Ezustekoak eta zartakoak sortzeko oso teknika aproposa; baina, jauzien ondorioz, zail egin zait narrazio batzuen haria ongi segitzea lehen irakurraldian (*Potroak, Pena, Gonbita*). Bigarren irakurraldian, aldiz, ahotsak ongi identifikatu eta hariak ongi josita zeudela ohartu naiz. Hortaz, hainbat narraziotan teknika narratibo ere bilakatu du ispilu hautsien irudia, kode hautsiak gorpuztu baititu maiz (elkarriketetan, osagai narratiboen segidan, jauzietan...), eta piezak josteko gonbidapena egiten digu. ■

» DISKOA

Seigarren haginkada



Iker Barandiaran
@IkerBarandiaran

Zelatan daude berriro Erromako aita-santua-
ren sasikumeak Santa Calavera delakoak erai-
kitako guzti hori profanatu eta eztandarazteko
unearen zain. Ustelkeriako Santa Calavera,
kapitalaren agindupean, gosea, izurritea, gerra
eta diru-gose amaiezina non-nahi barreiatzen
duena, sotana, txapeloker, bizardun belaunaldi
berri, etiketa jantzi zein gurutzea jantzita mo-
zorrotuta dago. Bilbotarrek seigarren diskoa
kaleratu berri dute eta jada inork sinesten ez
duen ongizate sistemari eta haren errudunei
aurre egiten diete modu gordinenean, egoera
zailenetan beti aurre egiten duten eta galtze-
ko ezertxo ere ez duten arratoi erasokorrenak
bezala. Adi haginkada berriari!

Rat-Zinger taldeak tiro egiten du lehenengo,
eta gero abestu. Izan ere, zertarako eztabai-
datu, hausnartu... bizitza hain gogorra denean
eta itxaropenik ez badago. Aukera bakarra
da bonzo eran aurrera egitea. Halakoak dira
Bilbo Handian erditutako sasikume hauen 12
kanoikada berriak: tralleroak, gitarreroak eta
erasokorrak erabat. Iraganean egin ohi zuten
bezala barkatzen ez duen abiadurz beteriko
hardcore-punka berreskuratu dute (*Santa
Calavera, Ya no quedan días de gloria, Verbode-
cer...*); Lemmy Kilmister handia ez dute inoiz
ahaztuko (*Toda forma de poder, Golpeando al
hombre muerto...*) ez jarreran ezta ahots erre-
gistroan ere. Tarteka musika industrialaren
oinarriak jarri zituzten taldeak gogora ekarri
dizkigute (*Antimental*) eta, bide batez, ohar-
kabeen pasa ziren Tromatism-en gisako talde
handiak errebindikatu dituzte (Zorrotzaurre-

Santa Calavera

RAT-ZINGER

Autoekoizpena, 2018



ko garai haiek!). Inoiz metalera ere hurbildu
izan dira (*Tu pasajero*) eta gai dira, baita ere,
abiadura itzela eta erritmo aldaketak ezkon-
tzeko (*Más allá del límite*). Baina diskotik dis-
kora estiloetan nolabaiteko jauziak egin izan
badituzte ere, ez dute inoiz inola ere ahaztuko
nondik datozen eta nongoak diren, hau da, ka-
lekumeak dira betirako. Horregatik, berezkoa
dute rock kaletarra eta, ondorioz, Quemando
Ruedas, Porco Bravo eta antzeko gizakumeen
tankerako sinesgarritasuna lortzen dute (*Tú
ya no eres él, No hay mañana* eta batez ere, *Mil
perras*). Diskoko azken hatsa edo tiroa *Indes-
tructibles*-i dagokio. Total, izango da gerorik?■

Rat-Zinger talde
bilbotarraren
seigarren diskoa da
'Santa Calavera'.



Emozioen notak



Dabi Piedra

ARGAZKIA: BILBOKO UDALA

MIKEL GOROSABEL, NORTON

Saio Linbikoak zikloko kontzertua. Otsailaren 21ean, Bilboko Bidebarrieta liburutegian.

Mikel Gorosabel, Norton, nagusiki EH Sukarrarekin lotzen dugunok ez gaude ohituta haren musika eserita eta geldi entzutera. Horregatik eskertzen ditugu Saio Linbikoak zikloaren barruan Bilboko Bidebarrieta liburutegian antolatuta zen emanaldiaren gisakoak. Gitarra soilaz lagunduta, Nortonek bere sentimenduak agerian utzi zituen ordu eta erdiko saio intimoa.

Horixe da, hain zuzen ere, Saio Linbikoen helburua, alegia, emozioak azalerraztea, barruko sententzioak nota musikalen bidez adieraztea eta publikoari hurbil-hurbiletik helaraztea. Musika, literatura eta sentimenduak, beste osagirik ez dute behar saiook. Osagai guztiak ondo nahasteko, zer kontatua duen artista bat oholztan egoteak asko laguntzen du.

Nortonen emanaldia, batik bat, beldurraren sentipenari lotua izan zen. Bakarka atera duen lehen diskoan, *Barne basoan barna* izenekoan, beldurrek


pisu handia dute. Nortonek sortutako doinuei hitzak jartzen hamaika euskal idazle aritu dira eta, beraz, bakoitzak bere barruko ikaraz azaleratu ahal izan ditu: iluntasuna, kartzelan sartu beharra, egunerokoari aurre egitea... nork bere arrazoiak ditu.

Baina ez pentsa besteen beldurrak entzuten pasa genuenik iluntzea, psikologoarenean egongo bagina legez. Hiru hamarkada baino gehiagoko ibilbidean, abesti mitiko asko pilatu ditu Mikel Gorosabelek eta haietako batzuk aukeratu zituen emanaldiaren lehen zatirako. 1990eko hamarkadan Asier Serrano lagunarekin batera abiatutako Lorelei taldearen zenbait pieza ezagun (*Bada hiri gorri bat*, *Ophelie Parisen...*) eta EH Sukarraren beste batzuk tartekatu zituen. Bereziarena, agian, *Gure lorategian* izan zen, Nortonen semea jaio zeneko maitasunean oinarritu baitzen berau sortzeko, azaldu zigunez.

Barne basoan barna laneko zenbait pieza etorri ziren gero, beldurren inguruko doinu intimo baina indartsuak. Harkaitz Cano, Jasone Osoro, Lutxo Egia, Gotzon Barandiaran, Leire Bilbao eta abarren hitzak Nortonen ahotsean entzutea plazera izan zen. Bukatzeko, Lorelei eta EH Sukarraren garaietara bueltatu ginen. Hori gutxi ez, eta saioko aurkezleak Jasone Osororen *12etan bermuta* eleberriko pasarte batzuk irakurri zituen, Nortonek egindako bi atsedendialdi laburretan.

Eserita eta geldi entzuteko kontzertua izan zen, Bidebarrietako aretoko besaulkien erosotasunean goxo-goxo. Baina ezin da ukatu disko berriko zein iragandako sasoiatiko zenbait abesti Nortonen ahotik entzunda, gorputz atalen batekin, demagun sorbaldarekin edo hankarekin, erritmoa segitzeko beharra etorri zitzaigula bati baino gehiagori. Sentimenduak errazago azaleratzen baitira musika onaz lagunduta. ■

Gurutzegrama



Ezker-eskuin:



1. Gauzaez, ezgai. Putzu. 2. Zurezko zati luzea eta laua, taula. Egokiera on. 3. Pipildu, landare batek ninikak atera. 4. Gertaera harrigarri. 5. Ahalmen ezkutuak dituen pertsona. Bizitzeko behar dena. 6. Sententzia. Trinkotasun. 7. Liturgi otoitza. Une egokian. 8. Zerbaiten urritasun-urte. Mea.

Goitik Behera

1. Gerritik beherako jantzia, bi hankak sartzeko irekidura bakarra duena. Hitz, berba.
2. Ore jangarri. Apaiz. 3. Ioiak eratu. 4. Parrokia bateko kide. 5. Akuri. Nota bokal barik.
6. **Ziburuko rap taldea (argazkian)**. Du, haiei. 7. Habea, harroina. 8. Donamariako
auzoa (Nafarroa). 9. Italiako ibaia. Iztarte. 10. Garai, aldi. Diru-zigor. 11. Zura iragazgaitz
bihurtzeko substantzia beltzaxka. 12. Anestesiko mota. 13. Leku hartara. 14. Zati, puska.
15. Norena atzizkia.

Esaera zaharra

Koka ezazu puzzlearen pieza bakoitza bere tokian eta esaera zahar bat agertuko zaizu.



Anagramak

Hitz bakoitzak aurrekoak dituen hizki berak ditu, bat izan ezik, baina bestelako hurrenkeran.

Lekaiameak, serorak
Jokaldia, partida
Joateko bidean
Zerbaiten berri izan
Egoera estua
Ia-ia
Ikasketak egin
Haserre, amorrua
Mingaina
Altzari hankadun
Buruzagi musulman
Amama
Ugaria

	MOJAK
	NAROA

Sudokua

Erraza

	5			9			8	6
9	6	4	3		8	1		2
	2				5	9		3
2			6	3	4			
6								1
			7	2	1			4
3		6	5				1	
4		1	2		3	6	9	5
5	8			1			3	

Zaila

					5		8	
			7					3
6		5	1		3		2	
5						3		
	9		5		2		7	
		8						6
	4		3		6	7		1
1					4			
	6		9					

Ebazpenak

"Martxo idor eta bero, ardaz leher gero."

ESAJERA ZAHARRA

ANAGRAMAK
MOJAK
JOKOA
JOAKI
JAKIN
KINKA
KASIK
IKASI
HISIA
MIHIA
MAHAI
IMANA
AMONA
NAROA

ANAGRAMAK

Atal, 15, Rena.
Po, Iztai, 10, Une, Isun, 11, Bijke, 12, Eter, 13, Hara, 14.
Elizhar, 5, Kui, N, 6, Maik, Die, 7, Zubagee, 8, Igrun, 9.
Gothik beheira: 1. Gona, Eie, 2. Ah, Apez, 3. Ionizatu, 4.
Dentsitate, 7, Letania, Aukeran, 8, Ezurte, Minerala.
Esker-eksum: 1. Gaiez, zipu, 2. Ohoi, Mugon,
3. Minikatu, 4. Izukari, Bizibehar, 6, Epa!
Dentsitate, 7, Letania, Aukeran, 8, Ezurte, Minerala.

4	3	7	6	2	5	1	8	9
9	2	1	7	4	8	5	6	3
6	8	5	1	9	3	4	2	7
3	5	7	4	8	6	9	3	1
2	1	8	4	3	7	9	5	6
8	4	2	3	5	6	7	9	1
1	5	9	2	7	4	6	3	8
7	6	3	9	8	1	2	4	5

5	8	2	9	1	6	4	4	3	7
4	7	1	2	8	3	6	9	5	5
3	9	6	5	4	7	2	1	8	
8	3	9	7	2	1	5	6	4	
6	4	7	8	5	9	3	2	1	
7	2	1	5	6	3	4	8	7	9
7	2	8	1	6	5	9	4	3	
9	6	4	3	7	8	1	5	2	
1	5	3	4	9	2	7	8	6	

Nicole Lougarot. So kritikoa maskaradei



Buhameen errealitatea deskubriturik

"Maskaradak ezagutzen ditut, zuberotar nauzu; baina, tziganoak maskaradetan hori ez nuen ezagutzen. Duela hamar urte hasi nituen ene ikerketak. Xiru festibalarentzat fanfarre bat xerkatzen genuela, 1802an Maulen buhameen sarekada bat izan zela deskubritu nuen. Orduan ez nekien buhameak tziganoak zirela, ez nekien deus. Xerkatu nuen amiñi bat eta prefosta, maskaradetan buhameak ukanki, nahi nuen konprentitu zertako".

Berez gustuko baditu ere, maskaradei buruzko ikuspegi kritiko bat plazaratzen dabil zuberotar antropologoa. Buhameei buruzko arrazismoa antzemanik, maskaradetako diskurtsoa aldatzeko deia egin du: "Maskaradak betiere maskaradak ditukezu hori aldatuz gero ere". Tradizioaren karga eta Euskal Herriko buhameen historiaren inorantzia dira batez ere aldaketarako oztopo. Haren ekarpenak ez dira, ordea, denen gustuko.

"Gaizki uzten nau maskaradetan buhameak nola agertzen diren ikusteak"



TESTUA ETA ARGAZKIAK:

Jenofa Berhokoirigoin

@Jenofa_B

Aitzinean gorriak, tokiko jendea, nobleak, garbiak, ordena. Giblean beltzak, kanpotarrak, pobregoak, desordena.

Bereizketa hau ikusten dut, baina ikertzaileek ere diote horrela dela. Ez orok, baina ikertzaile anitzek diote horrela direla maskaradak.

Arrazismoa ikusten duzu zuk maskaradetan.

Ni gaizki uzten nau maskaradetan buhameak nola agertzen diren ikusteak. Buhame eta kauteren pertsonaiak izugarri ederrak dira, maite ditut, karrikako antzerkia egiten dute eta arte hau maite dut. Baina oraino ere, ohoin, mozkorzale, alfer gisa agertzen dira buhameak. Hori ez dut maite. Euskal Herriko historiari begiratzean, horrela erakutsiak izan ziren eta errepresio anitz bizi izan zuten horren zuzentzeko.

Doi bat bakarrik zara hori salatzen. Zergatik zaila zaie zuberotarrei eta ikertzaileei hori aitortzea?

Hori horrela baita. Aita-amek horrela egin zuten, aitañi eta amañik ere bai... Tradizioa da! Horrela da eta ez dute ikusten! Ikertzaileak ere normalki ez dira ados. Diote buhameak edo tziganoak badiela, baina ez dute besterik ikusten. Buhameak daramanari ez diote begiratzen, ez eta ingurukoari. Alta, inguruari, historiari begiratuz gero, gauza anitz konprentitzen dugu.

Euskaldun askearen ideia erakargarria irudikatzen dute anitzek buhameetan eta hori dute gustuko.

Maskaraden bigarren zatia horrela da, baina lehen zatia buhameez trufatzeko da, hori segur da. Euskal jendarte onari eta nobleei egin kritika dela diote zenbaitek, baina hori ez da batere egia! Buhameen Legeak buhameez trufatzeko dira. Tzigano pare batekin aipatu dut eta uste dut tziganoak kapable lirakeela norberari zuzendu trufa hori egiteko, antzerkia maite dutelako. Kontua ez da hori, izugarri ontsa egingen lukete. Baina egiazko buhameek egin dezatela! Hori duzu kontua.

Zer aldatuko zenieke maskaradei?

Buhameak ohoinak direla eta beste



Europako beste herrietako eta Zuberoako maskaraden artean eite handia kausitzen du Lougarotek antolaketari doakionez.

oraino erratea... diskurtso hau kentzen ahal lukete. Bestela, "gu gira buhameak" erran ordez "gu gira muskildarrak" erran eta gero gauza bera egin dezatela. Kanbiatzen ahal da diskurtsoa. Gauza anitz aldatu dira maskaradetan: dantzak hartu du toki handi bat, pertsonaia batzuk desagertu dira, beste batzuk jin dira... Maskaradak betiere maskaradak ditukezu hori aldatuz gero ere.

Azkenean, ez da mentalitate kontu bat? Jendarteak aldatzen ez deino, maskaradak ez dira aldatuko.

Drole duzu zeren ez da mentalitate kontu bat ere. Ez dute ikusten arrazakeria! Gazteek jokatzeko dituzte buhameak, baina ez dituzte ezagutzen, ez dute sekulan ezagutu buhameen bizitza. Gazte nintzelarik portugaldar anitz baziren Zuberoan eta arrazismoa portugaldarrei bideratua zen, lehen buhameentzat zen arrazismoa hor portugaldarrentzat zen. Gaur egun oraino, buhame zenbait ez dira ontsa. Baxenabarren adibidez, oraino estigmatizaturik dira. Usu beraien ere ez dakite zerendako, ez delako deus erranik haien historiak eta gaur egun oraino tabua delako.

Zein leku zuten Ipar Euskal Herrian?

1802ko sarekadan 475 kontaturik zizuten eta 600 eta 800 artean ziren Iparaldean XIX. mendean. Baxenabarren ziren bereziki. Kostaldean kaskarotak ziren baina talde bera zenik ez gara segur, bi izen erabiltzen zirelako.

Aldatuko dira maskaradak?

Konprenitu behar dute ez dela horrela aritu behar. Buhameez ari garenez, ez dugu deus galdekatzen, berdin-berdin segitzen da. Gainera, buhameak ez dira bakarrik pobreak, ez da klase sozial bat bakarrik; populu bat duzu, kultura batekin, izugarri sufritu duena Euskal Herrian. Ez da normala.

Pertsonaia anitz desagertu dira. Horietan gehienak buhameak.

Bai. Bazen emazte haboro ere: kantiniarsa buhamisa zen, kauterekin ere bazen emazte bat, hartza ere bazen eta beste maskaradei so egiten bazaie, laguntzailea beti duzu tzigano bat.

Emazteak desagertu izana patriarkatuaren seinale litzateke.

Ez dakit lotura badenez patriarkatu-

rekin. Ez ziren emazteak, gizonak ziren emaztez bezitaturik. Erditzeak baziren eta asaldagarria zitzairen.

Noren iduriko zen asaldagarria?

Diote apezak ez zirela ados. Zernahi erraten eta egiten zuten, hori apezek ez zuten gustuko eta horregatik ziren desagertu.

Europako beste herrietako maskarada anitzetan ibili izan zara. Eite handia dute haien artean.

Antolaketa bera duzu, egunaren aitzina-menduan ere eite handiak dira, inguru bat egiten dute karriketan eta gero joko ematen dute plazan. Beti bada aitzinean, bikote bat, ezkonduak eta gibelean, usu zamaltzaina, hartza eta hezlea eta ondotik, kauterak eta buhameak, ijitoak badira.

Gure maskaradetako buhameak tziganoen populuaren barne direlako.

Buhameak tziganoen historiaren barne dira, lehen, gerla aitzin, horrela deitzen genituen Frantzian, izen bera zuten, gerroztik hitzak kanbiatu eta *manouche* edo *gitan* deitu dituzte taldeak. ■



Euskal Herriko Itzuliaren izena ingelesez jartzea kritikatu dute "One Country One Team" kanpainaren sustatzaileek

ARGIA Englishek aurreratu duenez, Euskal Herriko Itzuliaren izena ingelesez jartzearen kontra agertu dira zenbait militante abertzale kirolzale, hain justu "One Country One Team" kanpainarekin euskal selekzioaren ofizialtasuna bultzatu zuten berberak. "Itzuliaren izena euskaraz mantendu behar zuten. Absurdoa da. Eta ez du funtzionatzen: duela bi urteko gure kanpaina nolako txustarra izan zen ikusi besterik ez dago", azaldu dute ingelesez idatzitako prentsa-ohar batean (adierazpena itzulpen libre samarra da: "txustarra" jartzen zuen lekuan "piece of shit" dio jatorrizko testuak). Iragarri dutenez, sinadurak biltzen hasiko dira "Euskal Herriko Itzulia" izena berreskuratzeko. First Certificate titulua ateratzeko ahaleginetan jarraitzen dutela era konfirmatu dute.



Itzuliaren kartela ere modernizatu nahi izan dute gure kulturari leku garrantzitsua emanez.

SAREAN ARRANTZATUA

Amantala jazteko, kopon!



Millennial Carrero



Altsasuko gazteen auzia herri-epaimahai independente batek epaituko du

Concepción Espejel andreak zuzendu behar zuen Altsasuko gazteen aurkako epaiketa, baina kontuan hartuta Guardia Zibilaren koronel batekin ez-kondukta dagoela eta Guardia Zibilak "Merezimenduzko Saria" eman ziola, inpartzialtasuna bermatu aldera Espai-



Sánchez, Inda, Padilla eta Osborne epaimahaikide herrikoiak.

niako Auzitegi Nazionalak erabaki du haren lekuan herri-epaimahai bat osatzea. Ausaz aukeratutako epaimahaia nortzuk osatuko duten iragarri du jada: Bertín Osborne kultur eragilea, Marta Sánchez herriaren ahotsa, Errealeko atezain berria, José Padilla toreatzai-

le abanderatua, Nafarroako ordezkari gisa Eduardo Inda, Carles Puigdemontti espainiar bandera musukatzeko eskatu zion mutikoa eta Hispanitatearen Egunean ahuntza desfilatzen ateratzen duen legionarioa eta Aranzadik lurpetik atera dituen erreketek-zonbi pare bat.

ZULOAN

Bidaia bat AHT
eta lan-esplotazioan
barrena

Urko Apaolaza Avila



14 €

AHTko obren hesi laranja gainditu dugu

Lehen eskuko dokumentazio eta testigantzen bidez
egindako bidaia AHTko lan-esplotazioan barrena.

ARGIA eta Manu Robles-Arangizen elkarlanari esker argitaraturiko liburua.

ESKAERAK

www.argia.eus/denda | ☎ 943 371 545 | azoka@argia.eus

AHTzuloan



@AHTzuloan



www.argia.eus/blogak/zuloan





**INDARTU
DEZAGUN
INDARTZEN
GAITUENA**

Egin ARGIAkoa!

**Eman eta jaso
nahi duzun neurrian**

argia.eus/eginargiakoa

